


GOIERRITARRA

GOIERRITARRA HILABETEKARIA

Goierriko euskaldunon aldizkaria.

3. zenbakia. 90ko urtarrila-otsaila. 175 pzta.



TXIKI BEGIRISTAINEKIN HIZKETAN

ENERIO-ARALAR ETA ARTZANTZA HOBETZEKO BIDE TXARRAK

AITA URDANETA, ORDIZIAR «SANTU BELTZA»

GERRAURREKO POETA GAZTE EZEZAGUNEGI BAT

INKESTA (LANGABEZI-DATUAK), EUSKARA BEASAIN ETA ORDIZIAN, GOIERRIKO BERTSOLARITZA... «KONTRABAJUA», 'ETA GEHIAGO!

Plan on bat baduzu gogoan kontutan izan Kutxa.



**Si quieres un buen plan
cuenta con la Caja.**

Para que encuentres el Plan a tu medida, sólo tienes que decidir cuál o cuáles te convienen más.

Para que en el futuro, las cosas salgan como tú las hayas previsto.

PLAN DE PENSIONES

PLAN DE AHORRO ASEGURADO

PLAN DE AHORRO

Zure neurriko Plana aurki dezazun, zein edo zeintzu diren zuri hobekien datozkizunak aukeratu besterik ez duzu.

Etorkizunean, gauzak zuk aurrikusi bezala gerta daitezen. Zuk nahi duzun bezala.

PENTSIO-PLANA

AURREZKI-PLAN ASEGURATUA

AURREZKI-PLANA

**AURREZKI-KUTXA
MUNIZIPALA**



**CAJA DE AHORROS
MUNICIPAL**

GOIERRITARRA HILABETEKARIA

Bertako txalaparta eta albistaria

3. zenbakia. Urtarril-Otsail bukarretako alea. 175 pzta.

Argitaratzailea: «Goierritarrok»
Kultur Elkartea (Konstituzio prozesuan). Dorre-etxea, behe (Correos azpian), alondiga, 3. lokala. Tfna.: 889612. 124 posta kutxa, Ordizia.

Orain arte inongo dirulaguntzarik eman ez eta agindu ere agindu ez diguten Udal-Herriak: Ataun, Ezkio-Itxaso, Mutiloa, Zegama eta Zerrain.

Erredakzioa: Josune Agirre (publizitate arduraduna), Jon Mikel Arano, Aitor Larrañaga.

Aholkulariak: Tere Irastortza eta Andoni Sarriegi.

Ale honetan kolaboratu dute: Koldo Zubeldia, Gema M. Arrugaeta, Iñaki Kolomo «Marujo», Ramon Amundarain, Aran eta Lorea Agirre, Mikel Aramendi, elkarrizketatuak, inkestatu eta berriemaileak, Karlos Escaño, Txemari Garmendia, Iñaki Hidalgo, Rufino Iraola, Peio Iturrioz, Iñaki Larrañaga, Jexux Lete, Xabier Mendiguren, Gurutz Oñaskoaga, Ibon Sarasola, Andoni Sarriegi, Ramon Ugalde, Patxi Zubizarreta. Anagrama: Payi.

Gure eskerrik beroenak: Eroskiri bere dirulaguntzagatik, Ordiziako Kultur Etxeari, Goierriko udaletako langileei beren informazioagatik, eskualdeko kultur eta bestelako elkar-teei, mogidetan zaudetenoi, AKM eta LKari, beharrezkoa zaigun publizitatea eskaintzen diguzuenoi, eta era batera edo bestera, bai eta aldizkariaren saltzaileei eta edonolako laguntza lutzatzeko prest zaudetenoi.

Maketazioa: Goierritarrok.

Fotokonposizioa: ANTZA
Inprimategia: GERTU
Lege Gordailua: SS 926/89

GOIERRITARRA aldizkariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Era guztietako laguntzaren beharrean gaude: distribuziorako, emaketatzeko, idazteko... Irakurle: zure laguntzarik onena, suskribitu zaitez, har ezazu **GOIERRITARRA** etxean lehenbaitlehen.

GAUR EDO BIHARKO

KOLABORATZAILEEI:

GURE TELEFONOA, 889612.

**EROS, IRAKURRI
ETA ZABALTZAZU
GOIERRITARRA**

BALIZKO KOLABORATZAILEEI DEIA:

Herrietako, baita txikienetako, kolaboratzaileerik gabe ez garazango. Banakakoen nahiz taldekoen herri bakoitzeko kronikak, berriak, balorapenak gustora hartuko genituzke. Beren txokoa izango lukete.

Era berean kolaborazio literario, bai periodistikoak baieta artistikoak baita edozernolako argibide, lan idatzi, eritzi, argazki lanak e.a. zinez eskertuko genituzke.

Ordiziako 124 Posta Kutxara

bidali ditzakezue lantxo hoiek.

Etxe honetako atak ez dira ixten, parez pare, alderikalde zabalik ditugu parte hartu nahiz gero.

«GOIERRITARRA» ETXEAN JASO NAHI DUT

NIK ERE HARPIDEDUN IZAN NAHI DUT

IZEN-DEITURAK.....

HELBIDEA.....

HERRIA..... D.P.....

..... TLF.....

DIRUSARRERAK: GK: 01°1.427.276-8

Ordizia



SUSKRIBITU ZAITEZ!

**Urtebeteko
harpidetza
saria
1500 pzta.**



124 posta kutxa. Ordizia

Herrietatik Goierri: Urtarrila-Otsaila. NON-ZER berri



BEASAIN

— Urtarrilak 28, igandea, Berbena ALMEN taldearekin, arratseko 7retan Beheko Plazan.

— Otsailak 2, ostirala, arratseko 8,30tan EUSKARA BEASAINEN erakusketaren aurkezpena Iñaki Larrañagak eginga. Ondoren, luncha Udal-Liburutegian.

Otsailaren 3,4,5,10 eta 11 eguerdiko 12etatik 14tara eta arratseko 5etatik 8tara aipatu Euskara Beasainen erakusketa ikusgai Udaletxeko Batzarre-Aretoa, Kultur-Etxeko sarreratik sartuta. Lanegunetan berriz, arratsalde erakusketa bisitatzen duten guztiei oparitxo bat eskainiko zaie.

Gaueko 10,30tan Maskarada antzerki taldeak Patrick Süskinden Kontrabaxua obra antzeztuko du Alkartasuna Lizeoko Aretoa. Sarrera dohainik.

— Otsailak 3, larunbata, arratseko 8retan Andra Mari Zeruratuaren Parroki Elizan, Donostiako Musika-konserbatorioko Orkestra Txikiaren kontzertua. Sarrera dohainik.

— Otsailak 4, igandea, arratseko 6retako meza ondoren Loinaz Abesbatzak usadiozko Eslabaren Salbea abestuko du Parrokian, San Martinen bederatziurrenari bukaera emanez. Ilunabarrean, Santa Agedaren ohorezko kopia kantariak kaleetan zehar.

— Otsailak 5, astelehena, Loinazko San Martinen heriotzurrena.

Goizeko 11etan Meza Nagusia Parrokian. Arratsaldeko 5etan Loinazko San Martin Plazan «Arabiar kalejira» kale-antzerkia Goloka taldeak eskainita.

7retatik 10retara dantzaldia Akelarre taldeak alaituta.

— Otsailak 11, igandea, arratseko 7retatik 10retara dantzaldia Drindots taldearekin.



IDIAZABAL

San Blas Jaiak.

— Otsailak 2, ostirala, gaueko 10retan afizionatu mailako pilota partiduak. 12etan Helduen danborrada. Ondoren Tirri-Tarra txarangarekin dantzaldia.

— Otsailak 3, San Blas, larunbata, goizeko 10retan plater-hausketa Jasoko zelaiean. 11etan Meza Nagusia. Ondoren hamaiketako Bikarioetxean. 11,30tan Herriko txirrindularien lasterketa. 13tan Herriko Axari dantza-taldearen saioa. Arratsaldeko 5etan Haurren Danborrada. Gaueko 11etan Pilota lekuan, antzerkia, Ama begira zazu. Inguma taldearekin dantzaldia 3,30rak arte. 4retan xexenak. Ondoren gaupasa joku bereziekin.

— Otsailak 4, igandea, San Blas txiki. Goizeko 10retan Xake pilotalekuan. Helduentzako txapelketa azkarra. Ordu berean bola-jokua Igarondoko bola lekuan. 11etan Herriko Plazan hamaiketako Udaletxearen kontura. 12,30tan bertsolari saioa Plazan, Lopategi, Mendizabal, Lizaso, Murua. Arratsaldeko 5,30tan Pilotalekuan VI. San Blas Dantza suelto Lehiaketa. Lehiaketa mugatua.

8,30tan Zezen suzko umeentzako. 7,30tatik 2tara Joselu Anaiak.

— ZIRIKA Udal Irratia, FM 99,3. Ostiraleri 12,30tatik 13,30tara Herri Eskolako egindako programa. Larunbatero 13tatik 14tara Udal Kultur Batzordeak antolatutako programa: Gaia, albisteak, diska dedikatuak, hizkuntzaren txokoa (esaldi zaharrak...). 801099 tfna.



ITSASONDO

— Sukaldaritza ikastaroa martxan.



ORDIZIA

— Erakusketak: Urtarrilak 30-Otsailak 10. Pintura. Kolektiboa.

— Otsailak 1-25. Pintura. Kolektiboa.

— Otsailak 4 Santa Ageda Bezpera. Santa Ana Abesbatzaren saioa kalez kale.

GAZTETXEAN

— Otsailak 3 eta 10, goizeko 11etan soinu, pandero eta zanko ikastaroak

ZALDIBIA

— Kurtso bukaerarte dantza ikastaroak haur eta helduentzat.

— Makrame ikastaroak ekainarte. Gitarra ikastaroak.

— Aldizkari eta irrati tailerra umee-kin.

GOIERRIKO KULTUR ELKARTE ETA JENDEAK

ALTZAGA:— Artea Elkarte.

ATAUN:— Oargi Elkarte, San Martin. Troskaeta Elkarte, San Martin. Ataun Kirol Elkartea, San Martin. «Nondik» Aldizkaria: Iñaki Eskisabel, Xabier Barandiaran. — Joxe Martin Apalategi, antropologoa 470003 (Zorroaga). Jone Arin, idazlea, San Gregorio. Joxe Migel Barandiaran, antropologoa, Sara Etxea, San Gregorio. Joxean Ormazabal, idazlea, Elkar, 426319. Dionisio Galparsoro, Kultur zinegotzia, 881011.

BEASAIN:— Academia D'os and dont's 880346. Bareak, komertziantek elkartea 881446. CAFeko langile eta enplegatuen sorospen-kutxa 880364. Gipuzkoako Foru Aldundia, bidezainen etxea 880157. Murumendi Pelotazale elkartea 880364. Goiztiri AEK 889340. Soc. Deportiva Beasain 880874. Soc. Ciclista Loinaz 880874. Asoc. Parálisis Cerebral 880687. Udal Euskaltegia 889094. Kimuak-Basajaun, Kale Nagusia 23. Aritzera Udalekua, Yartzako Ferriak 12. «Ancha es Castilla» Musika-taldea, Kale Nagusia 21-ID. Goierriko Asanblada Ekologista, Kale Nagusia 44-behea. Loinaz Abesbatza, Oriamendi 13. Goierriko Zine-Kluba, La Salleko ikastetxea. Aitzgorri menditalea, Jose Martin Arana, 2. Beti-bizi Kultur Elkarte, Zazpi-Iturrieta 7. Alfil Xake Elkarte, Jose Migel Iturrioz 23. Usurbe Elkarte, Kale Nagusia 22. Jesus Larrañaga Kultur Elkarte, P9oligono Ezkiaga 1. Oria Garaia Kultur Elkarte, Sta. Maria, 5. Zaharren Egoitza Erauskin Errepidea 5. Arrano Kultur Elkarte, Bista Alaia, 1. Lanbide Kultur Elkarte, Juan XXIII, 2. Beasain Kirol Elkarte, 880838. Aitz zorrotz Elkarte, Oriamendi 11. Aralar argazkilari elkartea, Arana 2. Jubentudes Parrokiales, Sta. Maria, 3. Gaztedi Elkarte, San Ignazio 7. CAF Kirol Saila. Aurtzaka dantza-taldea 880285.

— Lorea Agirre, idazlea, 881406. Tere Irastortza, idazlea, 889640. Andoni Sarriegi, itzultzailea, 882683. Jose-txo, kultur gizona 882326. Urdanpileta, DVko kronista, 881655. Xaier Mendiguren, idazlea, 887683. J.A. Insausti, itzultzailea, 882093. J.M. Lasa, itzultzailea, 277117. Iñigo Egu-ren, txistekontalaria, 882440.

EZKIO-ITSASO:— Andoaga Elkarte. Zelaiondo Elkarte.

— Antton Idiakez, Kultur gizona eta euskarako irakaslea. M. Rosario Idiakez, itzultzailea, 720267.

GABIRI:— Osinalde Elkarte, Erdie Elkarte. Goruntz Dantza-taldea 887396.

— I. Murua, bertsolaria, 880066. Marian Bidegain, Maizpiden.

IDIAZABAL:— Idiazabal Kirol Elkarte, Kultur Etxea. Atxurbide Elkarte, Zepai Kalea. Axari Dantza Taldea, Gurutzeberri. Axari Elkarte, Plaza Nagusia. Otsa Elkarte, Plaza Nagusia. Kimu Elkarte, Kale Nagusia, 5. Pilota Eskola, Igarondo Pilotalekua. Zirika Irratia, 801099.

— Martin Lizarazu Kultur zinegotzia, 801064. Pilar Iparragirre, idazlea, 288239.

IKAZTEGIETA:— Asoc. Gipuzkoa-na pro-subnormales 653003.

ITSASONDO:— Gaztetxe Elkarte, Goiko Plaza. Arbelaitz, Beheko Plaza. Jubilatuen Egoitza, Udaletxe. Itsasondoko Kultur-taldea, Udaletxe.

— Mikel Aramendi, idazlea, 421608. Jexux Lete(ibai-ertz), idazlea, 885197. Joxe Mari Mendizabal, Kultur Zinegotzia, 885906. M. Mendizabal, bertsolaria, 884898. Jon Mikel Arano, idazlea, GOIERRITARRA aldizkaria, 881170-889612, Ordiziako 124 posta kutxa. Iñaki Larrañaga, soziologoa, 276855.

LAZKAO:— Danak Elkarte, S. Prudentzio 25. Domarda Elkarte, Areso 7. Ezparru Elkarte, Elozegi 18. Gerriko S.A., Elozegi 16. Txuri-urdin Elkarte, Hirigoien 12. Xake Elkarte, San Prudentzio 27. Lazkao Kirol Elkarte, Kiroldegia. Lazkao Abesbatza, beneditarrak. Ama-Lur mendigoi-zaleak, Areso 7. Oin-arin dantza-taldea. Antzar Gazteak txaranga. Danborrada Elkarte. Euskal Herrian Euskaraz (Gerriko taberna). Goiztiri AEK, Antsotegi. Maizpide Euskaltegia 889231. Goierriko Euskal Eskola, 886500.

— Juan Jose Agirre, Rufino Mujika, Kultur gizonak, 880170. Maritxu Dorronsoro, Kultur-zinegotzia 886408. Dionisio Amundarain, itzultzailea 889231. Pello Aranburu, Maizpide Euskaltegi-zuzendaria, 889231. Pakea Garmendia, kazetaria, 887299. X. Narbarte, bertsolaria, 888344. J.M. Iztueta, «Lazkao-txiki» 882007. Aitor Larrañaga. Drindots musika taldea (Jon Urdangarin). Josu Agirre, kultur-gizona. Mirentxu Etxezarreta, idazlea. Zorion Mujika, DVko kronista.

LEGORRETA: Bilkoin Elkarte, Kale Nagusia 7. Jotakea Elkarte, Nagusia 10.

— J.M. Agirrezabala, Kultur-zinegotzia, 806225. Xabier Agirre, antzerkilaria.

OLABERRIA: Guraso Elkarte, San Juan Plaza. Asoc. Poblado Jose Maria Aristrain. Odol emaleen Elkarte. Arkupe Elkarte, San Juan Plaza.

— Martin, udal-gizona, 881434.


ORDIZIA: Jakintza Dantza Taldea, Jose Arana Kalea. Txaprl Gorri Kirol Elkarte, Garagartza enparantza. Azari Ehiza eta Arrantza Elkarte Urdaneta 10. Ordiziako mendizaleak, Ordizia kalea 5. Ordiziako Kirol Elkarte, Ordiziako Rugby Elkarte. Boe-xing Ziklo Kluba, Filipinak 17. Irriki Kultur Elkarte, Jose Arana Kalea. Ordiziako Gazte Asanblada, Gaztetxe. Balakataklin atsedenaldirako taldea, kale nagusia 14. Altamirako Auzo Elkarte. Itxaropena Elkarte. Argi berri Elkarte, Gipuzkoa kalea. Larrun arri Elkarte, Jose Arana. Ortzadar argazki Elkarte, Barrena jauregia. Musika Eskola, Barrena. Bertsolari Eskola, Barrena. Santa Ana eta Santa Ana Txiki Abesbatzak, Dorrea Etxea. Oroith, Oroith Txiki eta Oroith Txiki-toak Abesbatzak, Barrena. Beti-Argi Banda, Dorrea. Goierritarra Aldizkaria, *Tfna.*: 889612. Laguntasuna Rondaila, Dorrea. Arlote Irratia, 888092.

— Peio Iturrioz, itzultzailea, 885850. Belen Maiza, kultur-zinegotzia, 880800. Gema M. Arrugaeta, 889325. Ramon Amundarain, irakaslea, 886816. Patxi Zubizarreta, idazlea, 882410. Jon Imanol Iturrioz, kazetaria. Julen Agirre Iturrioz, irakaslea, 884987. Ramon Ugalde, irakaslea, 792236. Rafa Arizmendi, DVko kronista, 882126. Iñaki Hidalgo, kultur-etxeko arduraduna, 881280.

ORMAIZTEGI: Barduliarrak Elkarte, Berjaidegi enparantza. Basozulo Elkarte, Zumalakarregi enparantza. Ormaiztegi Kirol Elkarte, San Andres 14. Zumalakarregi Museoa, 889900.

— Igartzabal, bertsolaria, 884259.

SEGURA: Atsedena Jubilatuta Elkarte, Zurbano Kalea. Elorri Kultur Elkarte, Zurbano kalea, 23. Segura Kirol Elkarte, Kultur Etxea. Guraso Elkarte, kale nagusia 24. Txoritegi Elkarte, Zurbano kalea 4. Zopajale elkar-tea, Larrizabal 3. Zain Berri dantza-taldea 801207.



ZALDIBIA: Mendi Elkartea, 884856. — Koldo Zubeldia, idazlea, 882278. Migel Anjel Unanua, idazlea 885306. Joxe Mari Goikoetxea, musika ekoizlea, 426319. Rufino Iraola, idazlea, 884353.

ZEGAMA: Casino Recreativo Cegamès, San Martin 5. Txarote Elkar-tea, Txarote auzoa. Olaberri Elkar-tea. — Amaia eta Eburne Alustiza, idaz-leak, 801171. Larrea, Kultur-zinego-tzia, 801053.

ZERAIN: Listormendi Elkarteak.
—Luis Aizpeolea, udal-gizona,
801682.

Abisua:

Segurasko, agenda honek jaso beharreko hainbat izen, telefono eta beste zenbait xehetasun, zuk, irakurle horrek, faltan bota edo behar ez den gisan azaltzen direla konturatuko zinen. Hurengo agendaren bati hori gerta ez dakion, bidal itzazu zure zuzenketa, apartazio eta berriak, 124 Ordiziako posta kutxara.

萬餘二元銀車	
大240KG特製鋼窗	萬四
美士亞士旅行車	9800
美士亞士自動	36500
林力架自動	8800
林力架自動	\$48000
林力架自動	28500
三亞使自動	由41000
三亞使自動	41000
大1558KG特製鋼窗	萬萬
大280KG特製自動	萬四
BMW320自動	31500
福特3.0四門豪華車	20500
福特264自動已驗	萬九
東方日產鋼窗	33000
BMW316特製	28000
保用三月·利來車行	
字號老舖好車K7782666	

DEBALDEKO IRAGARKIAK

SALMENTAK

- «Honda» motoa salgai, egoera onean, estrekin. 885585 tfnoa.
 - Karrerako bizikleta salgai, neurria: 60a. 888694 tfnoa, gauez dei.
 - «Bultako-frontera» motoa salgai, 125 cm³, egoera onean. 80.000 pza. 884836.
 - Seat «Panda-sprint» SS-W salgai, estrekin. 883781 tfna.
 - Eskritorio-mahaia salgai, 2 kajoiki-koa, egur naturalazko kolorezkoa. 7.000 pza. 883997 tfnora dei, 8ak ez-keror.
 - 96 bajuekiko akordeioia salmentara, egoera bikainean. 889475.
 - Salako armairu berria saltzen dut, tresiluekin edo gabe. 881674 tfnoa.
 - Hasiberrientzako moduko skiak salgai, makila eta oinetakoak 31-32 neurrikoak, berri bezalakoak. 7.000 pza. 883997 arratsaldeko 8tik aurrera.
 - Surf tabla salgai. Estrinagabea. 885130.
 - «Collie» txakurkume ederrak saltzen ditut. 888068, Beasain.
 - «Hurricane» kitarra salgai, oso merkea, «Fletxa». 882013.
 - 9 hilabetetako «Ispanier» ehize-zakurra salgai. 888871.
 - Andregai-jantzia salgai, eskularru eta kaskete oso dotoreekin batera. 889122.
- LANA**
- Neska bat eskaintzen da etxeko-lan eta ume eta zaharrak zaintzeko. Senpere kalea, 2^a, 4. Beasain.
 - Neska etxeko edota tenda lanetarako prest. Esperientziaduna. 884084, 4tik aurrera.

- *Lanerako, neska eskaintzen da: 885793 tfnoa.*
- *Neska batek lan egingo luke etxeko-lanetan, taberna garbiketetan, orduka. 885990.*
- *Emakumezkoa, etxeko lanetarako edo ume zaintzeko. 883566ra deitu.*
- *Neska, etxekolan edo umezaintzeko, euskaraz dakiena. Beasain, Ordizia eta inguruak. Interesatuok, 886789.*
- *Emakumezko batek gustora lan egingo luke orduka, edozer lanetarako prest, Beasain-Ordizian. 888520, gald-e Madalenagatik.*


ETXEBIZITZAK

- Errentako pisu bat behar dut Ordizia alkatu. Merkea bada hobe. 883166. Maiteregatik galdetu.
- Alokatzeko etxe merke bat behar dugu Ordizia edo Beasainen. Muebleriaz jantzirik edota ez. 13.00-13.30 edota gauzeu deitu 888451ra. Lurdes.
- Pisua salgai Beasainen. Zaldizurrieta 3. «Rubiorena»ren ondoan. 888330.
- Pisu hustu bat behar da merke-antxean Ordizia-Beasain-Ataunen. 881632.
- Pisu oso zentrukoa salgai. 881693 tfnora dei.

AGURRAK

Edan «Larios»: xardinxaar gehien
garbitu duen edabea!. Batman.

**Debaldeko iragarkia
orra izango da.
Testua idatzi eta bidali
gure bulegoetara
GOIERRITARRA
124 psta kutxa.
ORDIZIA**

[illegible]

Langabeziaren gaineko estadistika ofizialak kolokan

Goierriarrok

Galdera: Ez ote dago datuen manipulaziorik?

ELA. Euzko Langileen Alkartasuna

Datuak fidagarriak dira INEMeko bulegoetara izena ematera joan direnak kontutan hartuz gero. Jende asko dago utzikeria eta ez jakintasunaz apuntatu ez dena. INEMek apuntatzera joan direnen zerrenda dauka; bada-kigu datu hauek ez direla errealak eta jende asko geratzen dela kanpoan, baina ez dugu hau nola kontrastatu. Bestalde, Gobernuak ez ditu kolektibo guztiak baitaratzen zifraotan eta langabezi-indizeak makilatu eta kamuflatzeko modu bat baino ez dira. Hori ba ote dago zenbakiz demostratzerik?, guk ez dugu kapaziterik horretarako. Aipatzekoa baita ere INEM ez zaiola oraindik Eusko Jaurlaritzari transferitu, eta hau gertatzen ez den bitartean zifraon kontrol posibilitateak eta enplegu politika bati ekiteko auke-rak oso urriak dira.

LAB. Langile Abertzaleen Batzordeak

Nortzuk erabiltzen duten hortik etortzen da datuen irakurketa. Datu hauek ez dira neutroak, badute beren konotazioa. Momentu honetan eta sistema honetan moeta honetako enkuestek akats potolo eta nabarmenak dituzte. Teknikoki ikusita badaude zenbait kolektibo sartzen ez direnak: estudiant-mailan, jubilatutako aurreko tarte horretan espedienteak direla e.a. Beste konponente bat dago kontestu global hau aldatzeratzen duena, lanean dauden langileen lan motari dagokiona hain zuzen, hau da, geroz eta gehiago sortzen ari diren prekario deritzan lanpostu horien: oso kondizio txarretan, 8 ordu eta 40.000 pezeta esmerilatze-ko makina baten aurrean e.a., enpresa fantasma pilo batetan; noski horrela ari direnak lana duten langile bezala agertzen direla estatistiketan; zenbait boom ere badago, hemen ez hainbeste, ezta, zifra horiek globalki murrizten dituztenak, esate baterako turismoa, Olinpiadetako mobida e.a.; momentu honetan aipatzen diren zifrak dira 2.500.000 Estatu mailan eta 200.000 hemen; jeisten ari dela bai, baina gehienbat enplegu ebentualez, gaizki ordainduriko enplegu, lan txar eta zikinenetan gazteak sartuz ematen ari den jeitsiera. Beharbada jeitsiko zen langabezi maila, baina ze eratako enplegu sortu da?

CC.OO. Langile Komisioak

INEMen bidezko Lan Ministrari-tzaren langabeziari buruzko estatistikek ez dute inongo fidagarritasunik, eta Ministraritzak erabaki eta INEMen Zuzendaritzak gauzaturiko manipulazio jakin baterako propaganda politikoko tresna soila baino ez dira. Estatistika horien erizpideak finkatzeko garaiean bai Sindikatuak baita Patronalak ere baztertuak izan ziren.

«Plan Nacional de Inserción Profesional» delakoaren eraginez ez da langabetzat kontabilizatua izaten «hezkuntza edo formazio saioetan» arrazoirik gabe parte hartzea ukatzen dena.

Zifretatik kanpo geratzen diren kopurua gehitzeko hona hemen Gobernuak erabilitako trikimailuetako batzu:

16-18 urte bitarteko lan eskatzaileei, ikasle izan ala ez, ikasletzat hartzen zaie, estatistiketan lekuri eman gabe. Asteazken zehar ordu bate bi ordu lan egiten dutenei «empleo coyuntural» delakoaren atalean barneratzen zaie, lanez aldatzeko asmotan ibiliko bailitza. FIP, planeko ikastaroetako partaideak 2. enpleguaren eskatzaile gisa aurkezten dira. 52-60 urte bitarteko langabetuak prejubilatu gisa zerrendaratzen dira eta dira eta ez lan eskatzaile bezala.

Manipulazio hauek direla medio kalkulatu da 1989ko martxoan 1.345.815 lagun zeudela Estatistiketatik kanpo, hau da langabezi deklaratuaren %50a. Honen arabera langabezi zifrak 4 milioitara igoko lirake; honek ez du esa nahi zifrei begira oraindik zenbait kolektibok jasaten dituzten diskriminazio eta bazterketak, etxe-koandreena esate baterako, onartzen ditugunik, ezta gutxigo ere.





Inazio Araña. Igeltseroa, beasaindarra, 28 urte

Jeitsi ote den langabezia? Lan beltza bai igo dela mordoa eta azaltzen dena epe motzerako lana, hilabete-bihilabeterako, festetarako taberna-lana, igeltsero batekin ebentual, baina, hola, langabezia moztu? Ez zaidak iruditzen. Beno, zerbait bai, baina ez hainbeste, ez esaten duten hainbat. Gazte jendea ikusten da batipat langabezian, nahiz askotan ez dioken antzematen zertan ari den bati: edo langabezian, edo orduka lanean edota estudiantzen. Goierriko lanbide eskolak asko lagunduko dik, hala ematen dik, hor ibiltzen den jendea enplegatzen dela zirudik, orain arte. Hori bai, jeneralean, zerbait jeitsiko huen baina ez behar adina.



Maider Amilibia. Langabetua, ordiziarra, 19 urte

Gezurrezkoak direla iruditzen zait. Zenbat milioi langabetu egon daitekeen, zeinek daki? Gobernuak itxurak besterik ez ditu egiten, paroko estadistikak moldatuz eta mozturrotuz bere probetxurako. Eta guk ezin dugu ezer egin, gobernuen eskutan dago hori. Nere ustez Ordizian bertan langabetu asko dago, zertxobait egingo du hor Ofizio-etxeak —nere anaia hor dabil, esate baterako—, baina oraindik desanplegatu gehitxo dabil kaletik Estatuaren estadistikak egiazkoak izateko.

Ana Eskisabel. Langabezian, ataundarra, 19 urte

Uste dut gezurre dala, geroz eta jende gehiago nabaritzen da langabezian, oseake... PSOeri komeni zaiola-



ko esaten da hori. Nik behinepein, jende asko ezagutzen dut okupazio fitorik gabe kaletik pululatzen duena, batez ere gaztedia, Ataunen beharbada ez, baina bai Beasain eta Ordizia hauetan. Hortik aparte, lan beltza ugari, gure kontrakoa dena bestalde: momentuz dirua ematen du baina epe luzera aurkako izango dugu. Gaztediaz aprotxatzen ari dira, hauek lan zikinak egiteko. Jendea lanera sartzen da lanbide eskola eta okupazionalekin, jende bat, baina hori ere aprotxatzen da eta gero kaleko zirkulaziotik ere kentzen da jende hori. Lan beltza eta izen garbia: «okupazionala», okupatuta egotea da arazoa. Ez dut esan nahi Goierri ondo ateratzen ari ez denik.

Ordizia

HALTZARIAK

46, Posta Kutxa
ORDIZIA

Tfnoak: 88 23 50
88 23 54
88 11 92
88 53 50

GARAJE "LAZKAO"



Renault
ZERBITZU OFIZIALA

Salmenta eta jatorrizko errekanbioak
kotxe konponketa orokorrean

San Prudentzio Auzoa, z/g. Tfnoa: 88 24 42 LAZKAO



AUTO ESKOLA

TELEFONOAK:
Lazkao: 88 72 99
Beasain: 88 18 96

GIPUZKOA

construcciones
SUQUIA, S.A.

HORMA
PREFABRIKATUAK

Txindoki Etxea
Tfnoa: 88 58 00/04
ZALDIBIA

Irakurri dugu...

Dionisio Lakuara

Lehen Goiherriko Euskal Eskolako eta gero Habek Lazkaon Euskaltegia egin zuenetik, bertako zuzendari izan den Dionisio Amundarain Gazteiz aldera dijoakigu eta bere orde, Pello Aranbururi eman zaio Maizpideko ardura nagusia. (...) Itxura denez, orain lantegiz aldatzen da baino ez lanez; baldinbait ere, erantzukizun astunago-dun eginkizuna datorkio, esan bezala, Maizpiden bere oinordeko Pello gertzen delarik.

Zorion. «D.V.»

Lazkaoko «Maizpide» euskaltegiko zuzendari lana iazko abenduan utzi zuen Dionisio Amundarainek. Nahiz eta oraindik ere Lazkaon irakasle gisa diharduen, bi hilabete barru Lakuako Administrazioa egingo du mudantza, H.P.I.ren egiturapean dagoen aholku kontseiluko ardura iraunkor bat betetzeko.

«Txutxumutxuak»
«Argia», 90-I-28

Bizia jokatzeko

Situa zaitezte denok Madrid-Irún karretera jeneraleko puntu konkretu honetan: Ordiziako Renault inguruan, Zaldibiko bidegurutzean, Beasain aldeko irteera edo sarreran. Leku horretan akzidente eta inzidente gehiago gertatzen ez baldin bada, ez da kausa eta motiborik ez dagoelako. Zenbait ordu-garaitan kritikoa da horko egoera: berebiziko auto eta ibilgailu saila pilatzen da. Madrid-Irún jeneralean dagoen zirkulazioa jakinik eta darabilen abiadura ikusirik, Ordizia edota Zaldibi aldetik etorri eta jeneral horretara inkorporatzea abentura beldurgarri bezain arriskutsua da autozaleentzat. Batek baino gehiagok jotatzen du hor bizia, egunero.

Rufino Iraola. «D.V.», 90-I-16

«Fabrika haundia»n multinazionalen begiak

«Expansión»ek eskainitako notizi honen arabera, Asea Brown Boveri suizar multinazionala prest dago CAFen akzioen gehiengoaren jabe egiteko. Zenbait iturriren eritziz, Brown Boveryek gaurregun inbertsore arrotzen eskutan dagoen akzio paketea, CAFen %60a, lortu nahi du.

Rafa Arizmendi. «D.V.», 90-I-16.

Aldizkarien funtzioez.

Mankomunitate edo eskualde mailako proiektuak lirateke interesgarriagoak, gero eta berneharreman handiagoa baitago komarka burua eta beste herri txikiagoen artean ikasketak, lana, erosketak, gizarte zerbitzuak, kirol ikuskizunak, dibertsioak, festak, astialdiak, irteerak, ospakizunak... direla medio. Era honetan, maizegi, tematika aldetik eta eguneroko prentsarekin konpetitu beharrik jartzen dituzten mugak gaituz, proiektu zabalagoak sortuko lirateke eta herri txikiak, bestela ezinezko zaien proiektuan partaide izango lirateke.

Fernando Muniozguren.
«Argia»ren Euskal Kulturaren Urtekaritik

Mentxaka eta Joxemiel Barandiaran

- A gizarajoa, gaizki hasi nahi, orain egiten ari haizen ikerketa horiek direla eta, laster esango diate separatista bat haizela...

Eta berak erantzun:

- Ni kultura zati bat etnologia eta horretarako gaiak biltzen dituzdalako separatista izango al naiz? Nik geologia ikasi nuenean nere herrian Ataunen ibili nintzen harriak eta fosilak biltzen eta separatista ez izateko zer egin behar nuen; Eskandinabiara joan ala?

Hala ere, bere maisu izandako Mentxaka ez zetorren bat eta erantzun omen zion:

- Ez, ez, horretan arrazoi duk, baina orain biltzen ari haizen horiek ez dituk fosilak, ez dituk harriak, horiek gizakien ekintzak dituk eta ikusiko dek...

«Nondik», 23 zbkia



RAIMON MUSIKAL

**JAMO PROFESIONALA
BANATZAILE OFIZIALA
Korda eta Haize musikagailuak**

ZALDIZURRETA, z/g.
Tfnoa: 88 55 20

BEASAIN

Serraqi TAPIZERIA

TAPIZERIA - DEKORAZIOA

Goiherri, 12
Teléfono, 88 31 53

ORDIZIA

IBARRE TABERNA

Tfnoa: 880513

ITSASONDO

OTEGI

ERAIKUNTZA OROKORRAK

Tfnoa: 88 49 36

ITSASONDO



*Zure eta gure ahotsak zabaltzeko
erarik seguruen **SEGURA IRRATIA**
dugu. Indarberritu garenez, sail eta
alor berriak jorratzera gonbidatzen
zaitugu. Egunero, goizeko 8etatik
gaveko 12etara.*

FMko 89,2an gaude.

loira. Kamioiean, ezinezkoa baita errepidetatik ibiltzea. Inguruotan ibiltzen gaituk, baina ez bestela. Nahiz eta kamioirik izan ez, ganaduarekin ibiltzea errezagoa zuan. Kaminoan ere, gaur adinako pasea ez zegoan. Batetik, mendietako bideak eta gainantzeko, garbiak zeudean; bestetik, herri sailetan eta herri-mendietan-eta beste libertade batzuk. Ardi eta ganaduarentzat oztopo izugarriak jarri hituen: pinu gaztea sartu, mendibideak itxita zeuzkagu zikina eta zaborreria-ekin. Estutzen-estutzen hasita gaudek, Aralardik Errenderira zuzenean sartzen ditugula ardiak. Ailegatu gaituk puntu batetara zeinean menditik jeitsi eta ikuilua diagula parean. Gainera, lehen, baserritarra desatzen egoten huen ardiak bere soroetan hartzeko, haiek garbitu eta ximaurtzeko. Hori zeharo aldatuta zegok orain. Gaur baserritarrak bere behiak zeuzkak larretan eta ez zegok artzaiarentzako. Lehen inguruko mendi-saila garbitzen huen. Larrepostu gutxi geratzen duk, Beasaimendi, Itsasondo eta Legorretan ibiltzen gaituk, beste goi-herrietan ez.

— Artzai izaten ere ikasi beharrekoa da?

— Ez duk erraz ikasten den horietakoa. Praktika ezinbestekoa duk. Gauza asko eta asko ikasi, beharko. Konparaziorako, ardia umea egiten jartzen

bazaik eta asko pasatuta baldin baduk, heure manejo bat duk. Postura hontan eta hartan, gauzak ikusi heinean ikasten dituk. Joan zen neguan, ardiak kanpoan ez zuen jan berderik. Pentsua eman zitzairen eta amaren errapeko esnea zetorrela fuertegia edo belenatutakoa, bietako bat, arkumea hala galtzeko. Beterinarioak behi aldetik asko dakite, ardi-asuntoan ez dira sartu oraindano.

— «Pilotalekuak» direla, sorginak eta laminak direla..., izan ba omen dira goi horietan. Ikusi ote dituzu kasualitatez?

— Horietatik gutxi ikusi diat, harkaitza bai ugari. Galdutako pertsonon bat, hura ere marka izan huen! Azariren batzuk, erbia, basahuntza, horiek bai.

— Zer dela eta, begi-bistakoa bada ere, hain ondo igartzen du artzaiak datorkigun eguraldia? Pronostikorik badezu?

— Betiere. nola kuidoada izaten dugun, «Holakoa egingo balu!», fijatu egiten haiz eta artzai bakoitzak bere ideak dizkik. Gehixeago entenitzen diagula? Ez nitek ezetz esango. Eguraldiari begira egoten gaituk. Neronek ere, gutxi gora-behera, bazekiat hil-behera edo hil-gora noiz tokatzen den. Kaso asko ibiltzen dik artzaiak. Terrenoari ere erreparatu behar zaiok,

zelaian ez bezala, leku bizkar batean ez duk ura eta lokatza egiten. Bestalde, «koarta-tenporetan» badiagu fede, horri begira ere egoten gaituk jeneralmente. Aldi honetan hegoi haizea ibili duk eta guk, geure iritzirako, ez beti, baino hiru hilabeteotan hori aterako duela.

— Mendipuntan, norbaiten edota zerbaiten beharrian gehiago sentitzen ote?

— Noski, ez baitago laguntzarik inondik bakartasunean. Jainkoa ez zekiagu, baino estuasunean edota normalean inor ikusiz gero gustora diosola egiten zaiola hari! Artzaiak bidez aldatzen dik beste artzai batekin joateagatik edo elkarrengana inguratzeagatik. Inor igotzen bada, bata bestea zerbitzeko zegok, atera eta ematen zaiek. Ez duk kalean bezala, agurra ukatzeak-eta. Nerone gertatuta nago, mendia arriskutsua da, behin galdu mendian, lainoa itxi-itxia sartu, erabat gautu, hots egin eta inoren arrastorik ez! Bidea desegin eta eskerrak ardi-zintzarri hotsa aditu nuela! Ardi hotsa aditu ezkerro salbaturik zegok gizona. Ardiak eta txakurra hartu aurrean eta haiek beren txabolarra joaten dituk.

Mikel Aramendi

PRONOSTIKOA: BIDE TXARRAK ENERIO-ARALAR HOBETZEKO

Artzaien hitza: «Mendia da nere etxea»

Anjelekin elkarriketa bat preixoko genuela esan genionean bere andre eta Mariasen ama den Mariari, —«**deklarazioen bat**» egin behar ote zen eta— «**bideak tajuz konpondu ditzatela paperetik esijitu**» genezala eskatu zigun hark.

— Ardibideekin zer demontre gertatzen ote zen galde genion geure buaruari eta aurren-aurreneko horretaz aritu ginen artzai aita-semeekin bertatik bertarako belardi batean, sarobearen inguruan.

Arazoak ez zaizkie falta, aidanez. Gazte-jendea ez da apuntatzen eginkizun horietara eta diren artzaiak erreti-

ro adinean daude; Igaratzatik Alotza ingururako forestazio planak daude dirudienez eta ganadua galtzeaz, berri; Ganaduzalea haserre xamar; Enerioko tabernatxoan egon ohi da aspaldidanik Arza familia, esnea saltzen dutelarik Errenderi eta Iruna, gainontzekoa esnezaleari eta, «hori ez» —diote ahobatez—«ezinezkoa zaigu gaztarik egitea daukagun txabola eskasarekin».

Bideetaz kezkatuta, ezin ibiliko omen dira zaldiarekin, orain 30-40 urte antzean, inkomunikaturik eta, hitz batean, beti kalteturik. Ahazturik sentitzen dira Aralarko mendizerraren agintaritzaz edo erantzukizuna dutenen partetik.

«**Biderik gabe, ken artzaia**»

— Anjel Arzak dioenez, «**Ataundik Enerioko pista ebaki zien, hori hor zegok. Ibili-ibili-ibili eta arreglatu egerrez; piskana-piskana hondatu egin duk**». Artzai bakoitzak —eta inguruko izenak aitatzen ditu: Otegizabaleko gaztea, Konporta, Txutxueta-koak...— kotxea ba omen dute eta ez edukiagatik ere konbinatzen dira eta hor gora eta behera, badakizu, joaterik ere ez dago dagoeneko, dagoen bi-dearekin.

Bere seme Mariasek hartzen du hitza, esanez hemengo artzaiak bidea konpontzea eskatzen duela eta «bide-

rik gabe, ken artzaia» esaldia azpimarratuz. «Jende mordo bat zegok, ekologistak direla, handik, hemendik eta hortik, potaje bat armatzen dutela. Bazegok esaten duenik Aralarra ez dela bide beharrik! Biderik gabeko mendia, orduan, zertarako da? Bestetik, han garenok eta gabiltzanok, oraindik ogia jaten diagunok-edo, gizakiak izango gaituk oraindik, ezta? Jende guzti hori pertsonatzat zeuzkagu, baina ez haiek gu bezalakoak, antza denez. Biderik ez eta bat gaizkitzen da eta hura non jeitsi, nora hots egin, zer egin?», dio suturik eta arrapaladan. Mendiaren hondamendia ez has-teko behar den lekuan ixtea omen dauzkate bideak, artzaien ahotatik inoiz ez omen du entzun bideak ireki behar direnik, jendea motorrez igo da-din mendira.


Mendibiderik bai ala ez?

Artzai zaharrenak dioskunez, artzaiarentzat behar dute bakarrik bide horiek, ze artzaia da lehen interesatua, ez zaio komeni kaletarren igoera, galerarik handiena abeltzainak baitauka: «Jendea azaldu ezkerro ganadua endredatu, bota plastikoa, bota zerrikeria», ugaztunaren kaltetan.

Matiassek gaineratzen du, beragatik, «baita beheko kalean jarri nahi badute langa!». Halere, artzaiek eduki beharra daukatela jeneroa eta zernahi igo eta jeisteko egokiera. «Gauza guztiak ari dituk berritzen eta eraberritzen eta zer egin behar dugu guk, zaldiz, orain 30 urte bezala?».

Anjelek kontatzen du nola etortzen den kaletarra bihurturik maisu: behingo batean, galdetuz nola ibili litekeen mendiz automobilarekin, ez litzatekeela ametitu behar; beste behin, ea zertan ari zen, gaizki ari zela kimatzen lizarren bat eta gisakoak leporatuz. «Esan niena, mendiari asko begiratzeko diozue, e! Zuen etxek orain 40 urte bezala al dituzue? Ez al degu meioratu behar. Haiek armatu zutena! Ezetz, etxea eta mendia ez direla berdinak. Aduitu zituzten, zeureaz pentsatu, hau da nere etxea, e! Mendia da nere etxea».

Pasara ederrak merezi zituztela kalerume haiek, erabaki omen zuen gerora artzaiei juntak. Mendiko gaitz nagusia inkomunikazioa dateke: «Akatzeko gaitzak. Bi urte edo zer dira?, tximistak jota bota gizasemea, jendearen beharrean gertatu eta gure semea azken orduan suertatu zenari esker-rak. Biderik, bere txarrean, egon ez balitz, han hil beharko zian hark. Falta? Baita telefonoren bat edo radioren



Matias Arza: «Zintzarri mingain gabea, paretan hondatuko»

bat! Batentzat ez dut esango, baina bai 8-10eko artzai-koadrilarako.

Komenigarria litzatekeela erizten diote bien-ala-biek, nahiz eta gaur arte halakorik ez duten ikusi. Halere, printzipala bidea da, semearen ustetan, kilometrotan zulo galantak, «uda batean daukazu todo-terrenoa desarmatuta. Bide txarra eta luzea, triki eta traka, triki eta traka!».

Erakusteko bai, egiteko ez. Aurreko urtean ongariak igo izan behar ziren, baina ez inork bidean erreparatu. Mendia, larre aldetik eta gainantzeko-tik hobetzeko asmoak daudela, baina «ze arraiotarako hobetu, gora egiterik ez badago?», eta itxuragabeko gauzat-zat jotzen du hori artzai-semeak.

«Kontu ugari, ekintza gutxi»

Euri ura hartzeko poliesterreko de-

positu aproposak omen dauzkate Ene-rioko taberna inguruan, alferrik...

«Moto-bomba batekin moldatzen gaituk gu. Gure aldamenekoak p...k eta bi pasaz! Agindu bai, baina hor ez da ezer egin, itxura denez. Esaten diren interes horik eta bat ere ez...!».

Beheko bazterrotatik, bando eta pa-peretatik kontu franko badabilela bada, esaten diet, hala nola, Enerio-Aralarrarako Aktuazio Egitasmoa Aranzadikoen aldetikoa, joan zen udan ximaurkinez eta fosfatoz ongarritu zela bada guzti hura, erosioaren beldur forestazioari ekitea, txabolen konpon-tzea eta Mankomunitateari dagozkion beste zenbait matraka.

Hori, bertatik, arras eta erabat desberdin ikusten bide da. Anjelen esanetan, «joan deneko aspaldi hontan kontu hoiek bazabiltzek, baino hor gauza gutxi ikusten duk oraindio. Ez ditek

ezer egin, landarea aldatzea ez bada. Gure Matias hau soldadu zegoen urtean, gaur 20 bat urte, bi gazte etorri zitzaizkiguan eta gerozkoak eta hik bezelaxe, ea zerk falta egiten ziguan galdetu. Artean pistarik eta zerarik ez zegoan eta garai hartan urak egiten zigukean falta. Ura. Beno, apunteak-eta hartu zizkien, ez zekiat nondik zetozen haiek, nunbaitetik bai. Joan hituen eta gaur arte. Aranzadiko Iñaki Aizpuru itsasondarra etorri huen hurrena, iaz: zer falta egiten zuen eta txabolak nolakoak zeuden eta zera... Nik hola-ta-hola esan nitxoan, orduan hainbeste urte azaldutakoek agindutako uraren zai geundela. "Ez, oraingoan zer-edo-zer izango da" eta izango daka. "Zer-edo-zer izango da" hori, oraindik behintzat, ez duk azaldu. Ez zekiat, abonoa, berriz, aurtan ere gure partetik bota zezake-tek».

Hortaz, Mankomunitatea batere kezkatzen ote den galdetu eta ezertxo ere ezetz diote. «Bidea han zeukatek, han zegok hura egiteko. Mendiko txabola eta artzaiekin zein kezkatzen duk bada? Txabola arreglatzen hasi gintuan orain dela urte batzu eta galerazi egin zigutean. Konpontzerakoan nik ez nian eskatimurik egingo; berritu, pagatuko nian eta kito. Geldiarazi eta hala segitzen diagu. Ikusten duk, hau eta hura jarri behar dela, baina ez duk ezer jartzen», ziurtatzen du Matias Arzak.

Arazo ugari, gorri eta gordin. «Ardiak bainatzeko bainera jarri huen: abereak zornez josita. Batekoan ura atera behar dela, bestekoan botika toxikoa dela, eztaikit zer badakit zer, ardiak bainatzeko noiz eta menditik etorri beharreko egunak. Guri ere ederra pasa zitzaiguan, ume egiteko zeudela hazka eta hazka ardiak. Sanidade kanpainak alde batetik eta bestetik kasurik ere ez. Pulamentu txarrak. Kristoren desbarajustea dago: ilea moztu eta bainua segituan emango litzaiekeen, zai egon behar. Non da goarda edo zeini kasu egin...?». Eta fundamentu kaxkar honek kalte handiak dakarzukiola artzaiari.

Bukatzeko, artzai eta abeltzainen arteko giroa zernolakoa ote den galdetu diegu. Ez dago, garai batean bezala, artzaia besteen terrenotan berehala sartzen zelakoa eta halakorik, aida-nez. «Artzai bakoitzak bereak ditu, bere txabola-aurreak-eta. Ez da izaten "Zu honeraino" eta holakorik. Ardiak berak, gutxi gora-behera, bada-kite nondik jo». Eta punto.

Jon Arano

PUBLIZITATE ESKAINTZA


1.000 Aletako tirada izango du GOIERRITARRAK hasiera batean; Goierri osoan, komertzio, taberna, kiosko eta harpidedunen bidez banatu beharrekoak. PUBLIZITATE TARIFAK honako hauek izango dira:

BARNE ORRIALDEA

Orrialde osoa.....30.000 pzta.
Orrialde erdia15.000 pzta.
Hamarreko moduloa.....3.000 pzta.
tarteko moduloa 7.000 pzta.

ATZEKALDEKOA

Orrialde osoa
(zuri-beltzez)40.000 pzta.
orrialde erdia (koloretan) 25.000 pzta.



Publizitate hori argitaratu ahal izateko zuen etxearen fotolito, tarjeta, anagrama e.a.en bila pasatuko ginateke, (beste zenbait aldizkarietan edo herrietako festetako programa edo karteletan ateratako zeuon moduloak aprobetxatu genitzazke). Fotolito hori (k) hurrengo zenbakietarako guk gorde ahal izatea eskatuko genizueke, gauzak erreztearren. Gainantzean urte osorako ala hilabete bakoitzean hilabete horetako publizidadea egin nahi duzuen, zuen esku daude noizkoak eta nolakoak.

Harremanetarako, gure POSTA KUTXA Ordiziako 124.a da; diru sarrerak GK-ren Ordiziako sukurtsala, KONTU KORRENTA-REN zenbakia: 01 1.427.276-8.

Txiste eta beste

Aurrerakuntza? I. Eguren.

Galdetzen dio neska batek beste lagun bati:

— Aizu, Maritxu, zuk larrua jotze-rakoan hitzegiten al duzu zure senar-rarekin?

— Aldamenean telefonoa baldin badaukat, zergatik ez?

Ezina!

Behin Agustin joan omen zen ilea-paindegira eta esan omen zion ilemoz-tailari:

— Amak esan dit guapo-guapo jar-tzeko.

— Hi! Esaiok amari nik milagrorik ez dudala egiten.

Dotriña!

Irakasleak:

— Ia, nork nahi du zerura joan?

— Ni!!!!!! — Denak, batek ezik.

— Joxe, zuk ez al duzu nahi zerura joan?

— Bai, baina amak seiretako etxean egoteko esan dit.



LAN KIDE AURREZKIA  EUSKADIKO KUTXA


190
Sukurtsal

164
Kooperatiba
Elkartu

20.000
Lanpostua

230.000
Milioiko Aurrezkia

Euskadiko
Kutxa



LAGUN ARO
SEGUROS ASEGURUAK

Nafarroa Etorbidea, 27 — Telefonoa: 88 62 50 / 88 31 00
B E A S A I N

SEGURAKO LOKAZTITIK BARCELONARA, BALOIAREN ZIZTU BIZIAZ

Txiki Begiristain: «Oraindik ez dut Ligarik irabazi»

«Txiki» Begiristain, baloia besapean munduratutako olaberriatarra, triunfoaren ez titan murgildurik dabil, baina komentatu digunez futbol-taldea gaizki ari denean jokatzeko ikusten da benetan zein den ona eta zeinek ematen dien lasaitasuna gainerako jokalariei. Eguberrietan etxeratzean harrapatu genuen.



Umea zenetik futbolari emanda kristoren afizioz, Ordiziako frontoian ikasgelakoekin euren kisa futbol-torneoak antolatzen ariutakoa. Txiki dioenez orain ez bezala, garai hauetan ez bait omen dute hainbeste kirolarik egiten ume eta gazteek. Seguran hasten da federatu bezala 12-13 urterekin, hemen bi urte egin ondoren Olaberriara pasatzeko beste bi urtez. Saltoa Erreala Jubenilak fitxatzen duenean ematen da; Erreala Jubenileko plantilakoa izanda Errealeko figurekin hasten da entrenatzen. 17 urterekin Sansetik ia pasa gabe Erreal Nagusira katapultatua denon poza eta sorpresarako. Errealean 6 denboraldi egin ondoren Futbolaren Meketako bat den Barcelona jokalaria. 25 urte dituen Errealeko Atakun taldearen zale hau, ezkerreko extremo betidanik, «behar-ko, ze Seguran kriston lokaztia egoten zen eta dexente xamarreko toki bakarra hori izaten zen, ezkerreko korneerreko banda», eta hain aldakorra den Futbolaren «boltsan» altu kiztatzen duena, Olaberriako gainean elkarriketatu dugu hain zuzen.

— Ze inpresio sortzen dio 17-18 urtetako mutil bati hain goran ikusten zituen Errealeko jokalariekin batera aritzea, lehendabiziko denboraldietan errekanbio-pieza gisa baldin bada ere?

— Izan zen erabat harrigarria, ez bait da batere normala, egia esan. Espainiako Mundiala pasa eta gero izan zen. Artean Erreala zegoen bi liga irabazita eta 6 jokalaria izanda Munduko Txapelketan. Orduntxe izan zen Errealaren booma. Errealekoa izan, eta gainera momentu haietan...!, nik

ez nuen sinisten. Akordatzeko naiz lehendabiziko entrenamenduan, Zubietan, ni kanpoan geratu nintzela, ez nintzen sartzera atrebitzen Boronat etorri zitzaidan arte. Ez zaizu batere inporta errekanbio pieza bezala aritu beharra izatea eta partidu osoak ez jokatzeko. Entrenadoreak ondotoxo asko daki zer egiten duen. Hor gorabehera asko gerta litezke, partidu txar bat egiten duzula eta peligrrosoa izan daiteke moralaren aldetik. Ni nola Sansen ez nintzen izan ba oso ondo iruditu zitzaidan errodate hori egin izan beharra; gainera ni egundoko fenomeno izan banintz partidu osoak jokatu-ko nituzkeen, baina orduan zegoen jendea oso ona zen, Lopez Ufarte, Sartrategi, Zamora, Bakero...

— Hasi al zinen fetxa hauetan futbola profesio bezala ikusten?

— Errealean sartzearekin nahikoa eta gehiegi zen. Jokatu behar duzula jakiteak beste guztia ahaztu erazten dizu, dirua..., gauza guztien gainetik Errealean jokatzeko eta segitzea nahi izaten da.

— Estudiatzeari urte hartan utzi al zenion?

— Urte hartan COU egin nuen. Gero bi aldiz egon naiz matrikulatuta Enpresarialetan baina ez dut ezer egin. Oso zaila da konpajinatzea, futbolak denbora asko kentzen dizu, ez entrenamenduetan baizik eta buruaren aldetik. Beti ari zara futbolaz pentsatzen eta futbolaz hitzegiten. Dena dela, aurtan berriro matrikulatu naiz, jada futbola beste era batera ikusten dut eta, baina orain roila da 7 urte ezer egin gabe pasa ondoren berriro burua estudiantzeko moldatzea.



Etorkizun oparoa, baloia bezain borobildua espero dio na Txikiri

— Mantso-mantso, zure izena gero eta gehiago entzuten da. Luis Suarezren sub-21 selekzioa gako bihurtzen zara, Europako kopa konkistatuz...

— Min pixkat ematen du sub-21 honetan partidu guztiak jokatzeari Errealean horrela gertatzen ez zen bitartean. Iristen da momento bat desatzen zarela noiz izango selekzioaren partidua: proiektio oso ona ematen du Estatu mailan, zutaz hitzegiten hasten dira, injezio moduko bat da. Gero Toshack etorri zen eta lehendabiziko unetik hamaiken artean jarri ninduen, oso talde ona ginen, bloke konpakto bat osatzen genuen partidu eleganteak eginez.

— Aldaketa handia al dago begiratzat gero entrenamendu, disziplinari Errealetik Barcelonara?

— Ez, dena entrenadoreen gauza da. Entrenadore bakoitzak nahikoa autonomia eta autoritatea du.

— Eta instalazioekin? Barcelona-ko ikaragarria izango da ezta?

— Nik ikusi dudana futbol-zelai politena Barcelonarena da. Inpresionantea da, eta oraindik gainera zabaldu nahi dute, jatetxeak, zinemak, pisuren bat gehiago... jarri nahi dituzte. Publikoari begira dena akononantea, baina ez dauka Zubieta bat; txikia, estua den zelai batetan entrenatzen dugu, lokatza pixkat dagoenean grabila gainean entrenatu beharra izaten dugu!, eta gauza bera infantilekin e.a., infraestruktura falta nabarmena!

— Barcelonan lehendabiziko momentutik egiten zara titular, Erreko kopa lortzen duzue...

— Futbolean damakidan denbora guzti honetan, Barcelonan egindako lehendabizikoa izan da hoberena. 2 partidutan geratu naiz titular jokatu gabe. Halako talde batetan, jokalarien arteko konpetentzia hain handi honekin urte guztian jokatzeari izugarria izan zen.

— Zeintzu dira urte honetarako zure helburuak? Italiako Mundialean jokatu duzula uste duzu?

— Gure helburu nagusia Liga irabaztea da. 4 puntutara gaude Real Madriletik; etxean nahikoa aise ari gara irabazten. Kanpoan arazo gehiagorekin gailitza. Ez da batere erraza izango. Madrila oso gaizki hasi zen eta guk ez genuen aprobetxatu, Madrilek berriro martxa ona hartu duelarik. Barcelona, jokatzeko dituen konpetizio



guztietan irabaztera ateratzen da, Erreko patatik eliminatu gaituzte-nez... Italiako Mundialean selekzioarekin jokatzeko itxaropenak badituzte. Aurreko urtean Suarezek beti deitzen zida baina aurretik ez naiz oso ondo hasi eta Vilaroya e.a. hasi dira jokatzeko, gauzak ondo ari zaizkio ateratzen Suarez eta igoal egongo da nirekin pixkat ahaztuta, baina beno asko geratzen da oraindik eta berak ezagutzen nau.

— Kota altuagotara iristea espero duzu, Real Madrileren, Italiara... ze aspirazio duzu?

— Zaila da, Italiara joateko Europa mailako futbolariak hoberenetakoa izan behar duzu. Gero eta zailagoa da. Ni ez naiz jokatzeko ari gero Italiara joateko, satisfakzio pertsonalaz baidzik. Iaz oso ondo jokatu nuen baina 12 gol bakarrik sartu nituen, aurretik gehiago sartzea gustatuko litzaidake. Ez dago esaterik dena eginda dudarik, oraindik ez dut Ligarik irabazi, Mundialea ere hor dago, Eurokopa... beti dago zeozker, nahiz eta Barcelonan geratu.

— Zer moduz konpontzen zarete jokalarien artean Barcelonan?

— Ez dago harreman gehiegirik, ez da Errealean bezala. Barcelonan zailago da ze bakoitzak izan ditu bere lagunak, bere edukazioa, bere historiak... eta orduan erreparatu gehiago betire. Erresponzabilitatea ere handiagoa da, asko dago jokuan. Taldeko euskaldunekin harreman errexagoa dago dudarik gabe, komunikaziorako disposizio hobe, ulergarria den bezala, baina honek ez du esan nahi isten garenik;

dena den, giroa ona da, baina ez dira hemengo afariak, bazkariak...

— Zer asmo duzu zure futbolari karreraren ondorenerako?

— Pentsatzen dut oraindik beste 7 urte geratuko zaizkidala. Hau nire 8. urtea da eta pixkanaka hasten zara zerbait prestatzen, inbertsioak e.a...., bukatzen denean zerbait edukitzeko.

— Ez duzu ikusten zure burua entrenadore bezala?

— Puff!, bizimodua ona da baina tentsioetatik kaskatuta bukatzen dute, hiru urtez egoten dira, eta aurpegiz eta dena... futbolaz asko jakin behar duzu, psikologo izugarria izan behar duzu, harreman publikoetarako ere, prentsako jendea ondo tratatu behar, entrenadoreen imajina prentsak egiten bait du. Presio ikaragarria bat onartu beharrean dago. Presio hori ez dago Barcelonan soilik, edozein taldeetan aurki dezakezu, emaitzen arabera tajutzen da.

— Zer gertatzen da Barcelonan... «El Barça es más que un club...»

— Barcelonak esannahi berezi bat dauka Catalunyan. Sozio asko daude futbolera joaten ez direnak. Politika sartzen da dantzan, zentralismoaren aurka. Garai batetan Nou Campa katalaneraz hitzegitera joaten ziren. Catalunya osoan hor bakarrik hitzegiten zen katalaneraz. Abestu ere katalaneraz... Real Madrilekiko pikea hortik dator eta gaur eguneko gauza asko kontsekuentzi batzu baino ez dira.

— Zernolakoa da Barcelonako prentsaren aldetik izaten duzen akosoa. Asko kostatu al zaizue hortara moldatzea?

— Suerte ona izan nuen; partidu nahikoa onak egin nituen eta prentsak kritika onak egin zizkidan; ez da bate-re zaila kritika txarrak izan eta gaizki pasatzea. Barcelonako prentsarena izugarria da, egun guztia atzetik, entrenamendua bukatu eta 50 lagun gure gainean hemengo edota hangoagatik galdezka: prentsa, irratia, telebista... Aurreko urtea nahikoa lasaia izan zen, ba hala ere beti zegoen zerbait... ez baldin badago sortu egiten da, konpetentzia izugarria dago beraien artean, asuntua saltzea da, gauzak beren onetik atera eta exajeratu.

«Euskal Federazioa Espainolaren pean egongo litzateke. Oso polita litzateke bestela, baina ez dauka...»

— Alde handia dago Barcelona-Errealeko afizioen artean?

— Barcelonan ia denak eserlekuak dira. Sozioa nahikoa zaharra izaten da batzaz beste. Barcelonak ia munduko jokalaririk onenak izan ditu. Sozioa ohituta dago onena ikustera baino partidu batetan. Sozioa partidu bat ikustera joaten denean espektakulo bat ikustera joaten da. Bizi egiten dute, baina ez da hemen bezala, hemen jendeak gehiago animatzen du. Exijentzi maila ere handiagoa dute. 5.000 milioitako aurrekontua, jokalaririk onenak dituztela e.a., joaten dira partidua irabazi eta disfrutatzen.

— Beasainen baduzu Peña bat, Peña Txiki Begiristain delakoa...

— Beasainen asko ibiltzen nintzen, eta beno... niretzako sorpresa handi eta pozgarri bat izan zen; noizik behin ateratzen gara, afaritxoren bat egiten

dugu..., kasualitatea izan zen, urte hartan egin zen peña eta nik gero aldegin beharra, gero eta zailagoa egiten zait peñakoekin elkartzeko. Poza ez da bakarrik sortzearekin ematen, ni Barcelonan izanagatik ez da eten; hona etorri nintzen batean afari bat egin genuen, aurreko Errealak han jokatzeko duenean joaten diren peñako guztiei sarrera bana emango diet, ea joaten diren. Ikusten dut roiloez ez dela Errealarena soilik baizik eta baita ere nire pertsonarekiko afektuzko zerbait.

— Futbol zelai eta gradetako biolentzia, Peñak...laguntzen ote diote benetan futbolari ala dena kakazten ari dira?

— Hasiera batetan lortu zen Peñak zirela eta, futbolari gorakada bat ematea, jende gaztea inplikatzeko...nere ustez ez dugu ahaztu behar futbola kirola dela. Etxen partidu bat galtzea ez da hainbestekoa eta ez dago beti zertan errudun bat bilatzen aritu beharrik. Jende hau, peñetakoak, ez dago batere kontrolatua, 100 gazte elkartzeko gero, hori kontrolatzeko da.

— Kinielak, milioiak, publizitatea... hainbeste diru dantzan...zer deritsozu?

— Futbolak dirua mogitzen du, eta jendeari gustatzen zaionez... ez dago kirolik futbolaren moduan probintzia bat ekipa batekin identifikatzen denik.

— Arbitroez zer diozu?, arbitroen anka sartzeak, akatsak...

— Beti izango da horrelakorik. Nire ustez hotzagoak izan beharrean dago, arbitroak ere pertsonak dira, baina hobeto prestatuak ere egon daitezke, profesionalago izan, kontrolatu beren entrenamenduak...bideoak erabili, arbitroak elkartu eta ahalegindu erregulamendua berritu eta hobetzen, arbitroren bat jarri kanpoan edo horrelako zerbait...eta ez bakarrik arbitroekin, bestelako ataletan ere badago zer astindu.

— Euskal Selektzioarena nola ikusten duzu, utopikoa?

— Euskadiko Selektzioaren aitzakia beti izan da euskarari laguntzea. Ez dakit zenbat partidu behar diren UEFAk ofizialki onartzeko. Oraindik partidu batzu falta zaizkigu. Ez da posible Euskadiko selektzioa ikastolen kanpainen baitan uztea. Federazioa behar da, eta beno, Euskal Federazio hori espainolaren pean egongo litzateke. Oso polita izango litzateke bestela, baina ez dauka..., Euskal Selektzioan naparrak sartuko lirateke? Portugalen kontra jokatu behar genuen partidua atzera bota beharra egon da, problemak sortu dira eta.

— Zer iruditzen zaizkizu Atletikaren azken fitxajeak?

— Ni ez nago pozik hori gertatzen delako, baina dirua da nagusi. Nahiz eta zuk jokalaririk bati prezioa jarri, horrek ez du esan nahi partidu guztiak seguru irabaziko direnik, futbola ez da Matematika.

— Zer deritsozu errealean estranjeroak sartzeari?

— Niri ez zait gehiegi gustatzen. Hemengo roiloez beti izanda hemengo jendea sortu eta hemengoekin gauzak lortzea. Denok dakigu horrela zailagoa izango dela tituluak eta lortzea, baina zerbait lortuz gero, UEFA sartzea adibidez, jendea nahikoa harro sentitzen da, eta proportzioan Barcelona Europako Txapelketan jokatzeko adina bada. Estranjeroekin, harrotasun hori ez da berdina izango, jendea pozik egon arren.

— Kanteraz, zer?

— Europako roilo horrekin 1992.ean dena libre egongo da. Nahi badugu, batetik, etxekoak eduki, eta, bestetik, etxekoak Belgika, Italiara joatea, ondo prestatu behar ditugu.


*Txemari Garmendia
Aitor Larrañaga*

G U R P I L

- Telf: 88 89 51

Nafarroa Etorbidea, 3. - Telf: 88 21 03

20200 B E A S A I N



Inprimategia

Nafarroa Etorbidea, 9

Tfnoa: 88 94 82

20200 B E A S A I N

«ANTIGUALEKO KAINOIIEN BRONTZEAZ EGIN ZITZAION ESTATUA URDANETARI»

«Santu Beltza»

Mikel Aramendi *

Goierritar asko ez da topatzen —euskaldungoak oro har agertzen duen ugaritasunaren aldean behintzat— 1492ean Columbusek hasi eta orain, bost mende betetzean, 1992an, aintza eta gorazarez ospatu nahi den kolonizaketa prozesuaren lehen mailako protagonista-tzat jo daitezkeen artean; Urdaneta eta Legazpi lirarteke, ia soil-soilik, «lehen maila» honetako bakarrak. Mingarri gertatuko zaie egitate hauxe zenbaitzuri, beste goierritar askoxori —horrelako historiari «protagonista» izanak zinez zer adierazi nahi duen kontuak aterata— arras pozgarri egiten zaigun bezalaxe.

Izango dugu, besteren batean, Legazpi buruz jarduteko aukerarik; lot gatzazkion gaurkoz Urdanetaren kasuari. Brontzeko estatua («Santu Beltza») eta kalea bere jaioterrian, beste kale bat Donostian, Geografi Institutu bat bere izenpean... sekula baino ospe gehiago izango du oraintxe Urdanetaren izenak. Eta, egiazki, ez da hain ulerterraza, ezta ere oso-oso logikoa.

Legorretako «Urdaneta» etxeko etorkikoa aidanez, Ordizian jaio zen Urdaneta 1508an, jauntxo famia batean; Gorosabelek, hamar urte zaharragoa zatekeela iritzita, gaztetan Italia eta Alemaniako kanpainetan soldadu ibili zela dio baina gaur egun ahobatez onartzen da 17 urterekin, zenbait ikasketa egin ondoren, Jofre García de Loaisa-ren itsas-espedizioan sartu zela, beharbada Elkanoren gomendioz.

Bidaia haren xedea zen (Elkanok amaitu berria zuenaren kasuan, edo Urdanetak geroztik egingo zituen beste guztien kasuan bezalaxe) Moluketako espezia-merkatuetarako bide bat zehaztea... mendebaldetik, portugaldarren menpetik kanpo geratzen zen hemisferiotik joan eta etorriz. XVI mendearen hastapenetan, izugarrizko merkatal interesak gorpuzten ziren kanela, biper-hauts, itze, moskat-intxaur

eta gainerako espezieen inguruan («landare-urtea» aipatzen dute gaur egun historialariek) eta haiek ematen zireneko Asia Hegoekialdearen inguruan.

Loaisaren espedizioa erabateko porrotaz amaitu zen, Gaztelak mende haren lehen erdian Moluketara egin zituen beste guztien gisan. Hamar urte Asia Hegoekialdean portugaldarreko gerra kasik etengabea pasa ondo-

ren, bizirik (eta nabigaziogintzan arras jantzirik) itzultzea lortu zuen Urdanetak. Berehalakoan, Mexikotik Moluketara abiatu behar zuen beste espedizio batetan nabigazio-arduradun sartu zen P. de Alvaradoren agindupean. Haatik, Ertamerikako erresuma inditarren kontrako gerretan egindako izugarrikeriengatik ospetsu den konkistatzaile hau, abiatzeko prestakuntzak egiten ari zen bitartean, inditarrak hil zuten Mexiko mendebaldean;



espedizioa, bertan behera ahazturik geratu zen eta Urdaneta, egungo Jalisco eta Nayariteko lurraldeetan bizi ziren herri pima-nahuak eta «chichimecak» menderatzeko gerra higuinarrarian armagizon izan zen. Urdaneta-ren biografiagile gehienek erdi-ahantzirik bazterrera utzi ohi dute «pasadizo» hau.

1564ean Legazpiren espedizioan pilotu-arduradun gisan abiatu zenean, gauzak arras aldaturik aurkitzen ziren bai Urdaneta-ren bizimoduan (soldadutza utzi eta geroko negozioetan porrot egin ondoren agustino sartuta zegoelako) eta baita ere espezieek sortzen zuten interesari zegokionean (Ameriketako urreak Gaztelan eragindako inflazioagatik «merketu» egin ziren espeziak eta demanda ere eskatu egin zen amerikar jatorriko jangai berrien kompetentzia...). Lortu zuen Urdanetak, bidaia honetan, azkenik, Pazifikoa ekialderantz travesatzeko erruta zertzea (egun Filipineta deitzen dugunetik oso iparraldera joz, Kuro Shivo itsas-korrontearen bulkada eta haizeez baliatzeko), baina ia alfer-alferrikako lorpena izango zen: merkatal interesak oso eskastuta zeuden ordurako; hogeitau urte baino lehen, Felipe IIa Portugalgo erresumaz jabetuko zen...

Xelebrea bada ere, XVI mendearen lehen erdian hainbesteko irrikaz saiatutako erruta, ondorengo bi mendez «giltzaturik», ia batere erabili gabe, mantenduko zuten Gaztelako Kontseilu eta Erregeek, Asia Hegoekialdearekiko merkatal harreman guztia urtero «Manilarako galeoi» bakarrera mugatuz, Asiako manufaktura Ameriketako

ko merkatua «jan» ez zezaten eta, ordainetan, zilar amerikarra harantz abia ez zedin. Lope de Isastirenak irakurrita argi ikusten denez, Urdaneta hil eta 50 urtetara, ingurumari hauetan ere ez zen oso gogoangarritzat jotzen ordiziar pilotuaren paper historikoa.

Orain mendebeteko sistema politikoa espainolaren interes ideologikoen baitan sortu eta zabalduetako bertsioa da gaur egun Urdanetari buruz usualki topatzen ahal duguna. Ameriketako koloniarik gehienak galduta, munduaren beste puntan oraindik bere mende zuen Filipinetaren «espainiartasunaren» ideia suspertu behar zuten XIX mendeko errejimen borboniko espainiarrek, eta testuinguru horretan erreskatatu zuten Urdaneta historiaren ilunbetik: idatzi ziren biografiak, eman zitzaizkion kaleak... eta egin zitzaion —altzairuaren nagusitasunak bazterturik utzitako antigualeko kainoien brontzeaz— estatua bat, historikoki karikatura baldarra eta gezurtia baino ez dena (Urdaneta ez zen sekula mixiolari izan, ez Mexikon, are gutxiago Filipinetan).

Oraintxe chun urte, Ameriketako «deskubrimenduaren» IV mendeurrena ospatzear zegoenean (1992rako egin nahi dutena, besteak beste, ez da batere orijinala) bururatu zitzaion norbaiti estatua egitea; beronen lehen destinoa zen Manilako plaza printzipal bat, baina... egiten bukatu zuteneko, Filipineta ez zen espainola: independentizaleek, Estatu Batuen laguntzaz, irabazia zuten askapen gerra. Manilara joan behar zuen «Santu beltza» hementxe geratu zen, Ordizian,

«Orain mendebeteko sistema politikoa espainolaren interes ideologikoen baitakoa da Urdanetari buruzko bertsiorik usualena.»



Udaletxe aurreko plazan lehendabizi eta, hura estali zutenez geroztik, oraintxe dagoeneko lekuan... usoen kokaleku, parranderoen bijilante, asteazkenetako amandreek peri-xextoan zer dakarten begiratzen...

* «Zer Egin?» aldizkariaren zuzendari

ETXE - ALAI JATETXEA

☎ 88 52 55

20248 ALTZAGA
(Gipuzkoa)

ERAKUSKETA
SUKALDEKO TRESNAK

Alpe

Mariaz, 4

88 86 84

Urdaneta, 68

20200 BEASAI:

20240 ORDIZIA

AUTO KONPONKETA — MARGOKETA

GAUR, C.B.
Karrozeria

San Prudencio -
Teléfono, 88 86 09

Mendizabal

20210 LAZKAO (Gipuzkoa)



ORDIZIA BIDEO KLUB

Domingo Unanue, 1 - Tel. 88 79 19

20240 ORDIZIA

LAREO URTEGIARI JARRAIPENA

Urtegia martxan jarri zenetik eta udaldia gainditurik dugularik, beraren jarraipena egiteko une aproposa dela iruditzen zait.

Hasteko esan, dakigunez, bi zirela urtegia eraikitzearen arrazoi eta betebeharrak: Etxeetako ur-hornidura ziurtatu, (Ataun-Lazkao-Beasain-Ordizia, Arriarango urtegia egin bitartean eta gero Atauni bakarrik).

— **AGAUNTZA** ibaiaren erregulapen saneamendurako ur-etorri ekologikoa ziurtatu, bide batez **ORIA** ibaiari mesedegarria suertatuz.

Zalantzarik ez dago, oraingoz lehenengo puntua ongi bete duela Lareoko urtegiak, 89an jasandako lehortea txantxetako ez dela izan kontutan harturik, etxeko kanilean ez dugu ur faltarik ezagutu eta aipatu beharra dago ere, aurtengo Maiatzerako hasia zegoela jadanik funtzio hau betetzen.

Azter dezagun bada, 2. betebehara edo helburua: **AGAUNTZA**ren erregulapena.

Lehenik aipa dezagun, aurtengo udaldian zehar Agauntza ibaia ez dela lehortu, aurreko udaldietan gertatzen bezala; beraz, ibaiaren bizitzarekiko faktore garrantzitsua dugu hau.

Maizegitik Oria ibaiarekin elkartu arte Agauntza ibaia jarraitzen badugu, zuzenketa neurriak eskatzen duten puntu beltz edo tarte batzuekin topo egingo dugu.

Goi-aldeko egoera. ("Aguas arriba")

a.— Maizegiko «Azud» presatxotik Akerretarainoko tarteak, 2 km. gutxi gorabehera, ia dena lehortuta aurkitzen da eta egoera horretara kondatua. Puntu hau, bakar bakarrik, aipamen gisara aipatzen dut, esan bezala, ez dudalako kasu honetarako beste irtenbiderik ikusten, errekatxo honen funtzio berria bere urak Lareora bideratzea bait da.

b.— Jakin badakigu, uren erregulapenaren etorri ekologikoa Malkorburuko leize-zuloan izkutatzen dela eta lurrazpiko ubideari esker Urzuloa iturburuan (IRABELTZ inguruetan) lur gaineratuz berriro; bitartean gutxi gorabehera 5 kmtako desagarkerka dagoelarik.


Lareo urtegia eraiki aurretik Akerreta-Urzuloa tartearen nahiz eta ur-korronterik ez eraman ubideak, bertan dirauten potzu gehienak behinik-behin, ez ziren erabat lehortzen, Maizegiko ur apurrek eta Lizarrausti inguruko errekatxoek bertako bizitza mantentzen zuten; orain aldiz, bestela gertatzen delarik, 3 edo 4 potzu izan ezik, ez bait dute urik mantentzen.

Lareoko proiektuan 900 milioi pezeta inguru gastatu eta ingurune gaineko inpakto gaia kontutan hartu izan delarik arazo hau konpondu beharrekoa dela deritzot. Ibaiaren gutxi gorabehera 5 km. lehortzeak duen garrantzi ekologikoak kosto ekonomiko gutxi eta konponketa erraza duelakoan nago. Uda partean egiten duen euri apurrez Lizarrausti inguruetako errekatxuloak jasotzen duten ur eraginen menpe ez dago uzterik erreka zati bakarti, aparta eta basati hau; erregulatu eta gutxienezko ur-etorri bat ziurtatu beharra dago hemen ere; horrela, alde honetan praktikatzen den ixileko arrantzaren aurkako beste neurri efektibo bat izan daiteke, bijilantzia areagotzetik aparte; alde honetako lixiba pote kopurua praktika honen adierazgarri garbia bait da.

Ur-ekologiko guztia Malkorburuko leizera bota beharrean, orain arte egin den bezala, zati bat ubideratzea nahikoa izango litzateke, Malkorburutik Akerretaraino ez bait dago tarte handirik, apenas 200 m. egongo direlarik, eta bestalde, ez dut uste aldaketa honek inpaktu gehiegirik suposatuko duenik, lurrazpitik edo gainetik egin daitekeelako.

d.— Kaxeta inguruan, Errondo baserritik gorantz, beste km.ko tarteak aurkitzen da lehorturik. Alde hau uda guztietan normalki lehortzen dena izanik ere, kasu honetan Lareok zer ikusirik ez izan arren, uste dut hau ere berreskuratzeak pena merezi duela, horretarako ur filtrazio gunea gainditu beharko litzatekeelarik.

Hitz gutxitan azalduz, esan dezakegu Akerretatik Kaxeta arte gutxi gorabehera 10 km. badaude, horietatik erdia lehorturik aurkitzen dela. Kontutan hartzeko datua.



e.— Goi-aldeko egoeraz ari garelarik, Aia-Iturrietako errekatxoak ere aipamen bat merezi du, izen berdineko iturburuan sobratzen diren urei esker, gutxi gorabehera 6 l/sg.ko, Kaxetarinoko tarte honen egoerak hobekuntza nabarmena izan duelako; izan ere, zati hau ere gehienetan lehortzen bait zen uda aldean.

Behe-aldeko egoera. ("Aguas abajo")

Agauntzaren erregulapenaren jarraipena Kaxetatik Senpererainoko tartean zentratzen badugu ondorengo datuok mahaigaineratu beharko ditugu.

a.— **Erregario arazoa.**— Urtean zehar jasan dugun lehortea batetik eta Agauntzak ur-korrontea eramatea bestetik direla-eta, moto-bonbak ikaragarri ugaritu dira. Nonnahi eta noiznahi ikus daitezke martxan. Ugaltze honen eta erregario baimena dutenen kontrol ezak Agauntzaren ur-etorriari eraso eta murrizte handiak suposatzen dizkio. Kontrol neurriak bakarrik ez, tasa arazoa ere aztertze gaia izan beharko du.

b.— **Industriegintzan erabiltzen diren uren arazoa.**— Puntu honek aurrekoarekin lotura duenez tratamendu berdina edo antzekoa beharko zaio eman; hau da Agauntza ibaiko kanalizazio eta ur-hartze guztien kontrol ze-

hatza eta iraunkorra, ekintza hauek ere ibaiarekiko eraso suposatzen bait dute (kaudala murriztea).

Bestalde, ubide eta konportak egoera kaxarrean aurkitzen direla aipatu beharra dago

Aztartu dugun ur-etorri ekologikotik at, badaude Lareo inguruan zuzenketa neurriak eskatzen duten beste gai batzu ere; hala nola:

Lareora sarbideak.— Maomendiko pistan sekulako auto mogimendua izan da aurtan. Jakin badakigu, masifikazioak degradazioa dakarrela, eta urtegiko ur-kalitatea mantendu nahi bada, mogimendu hau derrigorrez kontrolatu egin behar da. Zalantzarik ez dago proiektuaren erakartasuna eta eman zaion informazioari esker jendearengan ikusmin handia sortu dela, eta ondorioz narraxkeri dezente ikusi da, asteburuetan gehienbat.

Bestalde, ikerketa guztietan, Lizarrausti-Akerreta bidearen berreskuratzea onartua dago, baina ez da ezer egin. Oinezko bide hau konpontzea beharrezkotzat jotzen dut, «betiko» bide bat berreskuratu eta jendearen emana zabalduko genuelako, aldiz, ibilaldiaren atsegingarritasunaren poderioz, gaur egun Maomendiko pistak jasaten duen eraso zerbaite deskongestionatzea lortuko litzateke.

Zuhaitz landaketak Lareo inguruetan.— Iaz egin ziren birlandatze-lanak berriro errebasu sakon bat

egitea eskatzen du, landare kopuru handiena edo osoa galdurik aurkitzen delako jadanik. Arantzadun alanbre itxidura berandu jartzea izan da landare galtze honen funtsezko arazoia; izan ere Azaro aldean birlandatutako lurak Maiatza arte ez ziren babestua izan, bitarte horretan abereak aipatutako hondaketa egina zutelarik. Bestalde, itxidura jarri ondoren ere, behor, zaldi, behi eta ardi sailak maiz ikusten dira esparruetatik kanpo, honek suposatzen dituen erasoek itxiduren finkatzea eta bijilantzi edo ardura gehiago eskatzen dutelarik.

Ondorioak

Lareoko proiektuari hobekuntza bat eman nahi badiogu, laburtuz esan dezakegu, ekologikoki ur-etorriak zuzenketa neurriak behar dituela, gutxi gora-behera 5km.tako ubidea lehortuta egotea ez bait da baztertzeko edo ahazteko gaia; halaber, ureztatze eta industri erabiltzenerako uren kontrol zehatza, birlandaketa lanak eta sarbide arazoei ere irtenbidea eman beharra dagoela eta esandako proiektuan, inguruko hobekuntzan eta bere funtzionamenduan Ataun-Lazkao Udaltxeak, Aia-Iturrieta amankomunitateak, Foru Aldundiak eta Confederación Hidrográfica del Norte delakoak parte hartu beharko dute, bakoitzak bere zeregin konkretuekin.

Patxi Madariaga

(Lazkao)



Mediku-premian Gaintza



Gaintza Gipuzkoako 124 biztanleko herri txiki bat dugu, bertan pertsona edadetu asko dagoelarik. Bere osasun zerbitzua Zaldibiakoari erantsia dago, han bizi bait da asistentzia publikoa prestatzen duen medikua.

Honek Zaldibian pasatzen du egunero kontsulta eta gure herrira etortzen da premiazko beharraldietan bakarrik. Bainan, premialdian ez dau den bizilagunek ere beren atentzioa eskatzen dute eta horrela, gaixo kroniko batzuek tentsio arteriala hartu beharra daukate, bronkitiko kronikoak kontrola behar dute, diabetikoak eta besteak. Gaixotasun hauek medikazio asko behar dute eta beren errezetak egiteko Zaldibiara joan beharra dago. Sarritan ordea, kontsulta honetara joatea ezinezko egiten da, zeren Zaldibian gaixo asko egoten da eta orduan jende asko itxoi ten. Gainera, gure herrian ez dago inungo garraio zerbitzu publikorik, taxia erabiltzea berriz ezinezko egiten da, itxoin beharra dagoen denboragatik. Kotxe partikularak bakarrik erabili daitezke bainan hauen gidariak ordu horietan lanean egoten dira eta hori ezinezko egiten da. Orduan, gaintzatarrek kontsulta partikularretara joaten dira arratsalde eta sarritan beren poltsikuetatik ordaintzen dituzte botikak. Hau ez da ordea gizarte justizia, urteetan kotizatu ondoren eta indarreko Konstituzioak garantizatutako zerbitzua izanik gainera.

Ni buru naizeneko Gorporazioak fruitu gabeko jestio asko egin ditu Osakidetza arduradunak diren Cerdan eta Quintana jaunen aurrean eta plaza honetako mediku titularrarenean, astean behin edo bi aldiz bera gure herrira etorri dadin. Fruitu eta itxaropen gabeak izan dira gure agintarien borondateetan, zeinek Gaintza-ren kasuan esaten duten bi interes lejitimoak armonizatu behar direla, hau da, berehalako mediku zerbitzuaren prestakizuna Konstituzioaren printzipioen arabera eta pertsonal funtzionarioen eskubide eta betebeharrak. Bi interes hauen kontziliazioari itxoin behar ordea, Osakidetza azken txostenak dioten bezala disfuntzio hauek gaintzitzeko, zein gertatuko da lehen atentzio zerbitzuen piskanakako aurrerapide eta implantazioarekin eta tokietako osasun zerbitzuan pertsonala sartzan denean, zein borondatezko eran

egingo da, 1984ko 137 E.D.ko 3. artikulua eta 4. D.T. arabera, sarrerako eskaera baten bidez. Baina horrelako txosten justifikagarria behar bada nahikoa da papelezko orri batzuek betetzea, ez ordea neke gabe herriko osasun zerbitzua egunero eskatzen ari den gure herriarentzako, zeinak Zaldibian edo beste edozein herritan eskaintzen den zerbitzua merezi du. Behar bada, gaur salatzen ari garen zerbitzua eman zitekeen orain dela urte batzuek, Gaintzak gaurko infrastrukturarik ez zuenean, baino gaur egun gure herriak oso errepide onak ditu. Horregatik ez da inungo justifikaziorik argitzen bere biztanleei, gutxien izanda ere, zor zaien gutxieneko osasun zerbitzua ez emateko.

Gaintzako herria ez dago ados denbora gehiago egoera honekin jarraitzearekin, disfuntzio eta indarrean dagoen osasun modeloaren nahikoezagatik. Osakidetza arduradunen kompetentzia da insufizientzia hauen gaintzitzeko eta beroiek pregonatzen duten berehalako mediku zerbitzua prestatzea.

Alkatea: J.M. Matxain.

Salaketa bat

Errege egunez, eta Kirol zaletu familia bat garenez, joan ginen Donostiara «Cross Gimnastica de Uli» izen burutzat duen kross saioa ikustera, egun pasa. Eguna zoragarria, urtean behingo treneko joan-etorria eginez abiatu eta, Uru-mearen itsasoratzeari bira emanez

heldu ginen Gross hauzora.

Maila ezberdinetako korrikalariak ikusiz, gustora nengoen baina, belarriak minez nituen entzuten nuenarengatik. Mikrofonoa eskuetan zuenak, euskaraz ezer gutxi edo batere egiten ez zuelako. Bukatu ziren probak eta inguratu ginen trofeo banaketarako jarririk zegoen kamioiaren ertzera. Euskara ez entzuteak harridura neukan, baina horra hor nere harridura, mikrofonodunak aurkezpenak españolez eta frantsesez egiten zituela ikustean.

Ondoan neukan gizonezko batek, txistua lurrera botaz zera esan zuen: —«Hau duk diplomazia». Entzun eta, elkarri begiratu genion. «Euskaldunak» —galdetu zidan. —Noski baietz! —erantzun nion. Hala ere euskaldun bakarra nintzelakoan esan eta aldegin zuen.

Gosetu ginenez, eta eguzki beroaren atseginez, gure modukoentzako taberna batera sartu ginen eta berriro ere harridura: 8 edo 10 mahaietatik bi ginen euskaraz mintzatzan ginenak. Zulotik atera eta portu ertzerara joan ginen, eguraldiak ez bait zuen agintzen taberna zuloan egotea.

Ez naiz Donostiako kale izenen jakituna eta bertan galtzen ez banait ere, ez dakit zer kale zen, gure begiradak bertara zuzendu arazi gintuena. Kale bat atzeagotik alabak esan zidan: —patinete saioak izango dira!. Hurbildu ginen, Kale oso bat bailaz hesitua eta bailaz

kanpokaldea haur eta gaztetxoz josia, baila erdian patinetedun mutikoek zilipurdiak eginez eta, organizatuta zeudenez mikrofonoarekin beste mutiko bat. Patinete leihaketa bat zen. Kanean asko ikusten ditugunez ez da harritzekoa, baina bai zen harritzekoa hango hizkuntza, dena espñola bait zen eta, horra hor mikrofonoduna non hasten den: «Fulano de tal, empezamos zinco, cuatro, tres...». Ez zen posible ikusmira hura luzatzea, gehiegi erakutsi bait ziguten zenbaki horien segipenak eta ospa aldegin genuen. Lauron galdera hara zer zen: —«Nora etorri gara?, Donostiara, Burgosera ala Madrilera?».

Segidan nere salaketa: kontzentziatuko ote gara euskaldunak gara, ez hitzez baizik eta izatez. Askok egin dezakegu hizkuntza batez, aldareraino igo dezakegu, polita dela erakusteko, baina egunero erabilpenean urratzen ez badugu, Francok lortu ez zuena (hau da, euskara desagertzea) denon demokrazia delako honek hankapean zapaltzera eramango du.

Hau da tristura jaunok!

ATAUNDAR BAT

ESTUTZEN HASIAK DAUDE ARTZAIK, GOIAK ETA BEHEAK ITXITA

Anjel Arza, «Artzantzan, ez errazetik joaten delako»

Betiko ohitura eta beharrizanari eutsiz, jeitsi dira aurtengo negu honetan ere mendiko puntatik, ardiz inguraturik, iaz eta antzinan bezala gure artzaiak.

Ezaguera hasi zitzaionetik da artzai Anjel Arza. 66 urte ditu, 7 egiteko, familia galanta, 400/500neko artaldea eta zer esanik ez, esateko pranko hiltunen artean.

Soldaduskara joan bitartean, behiak eta ardiak ezagutu zituen Itsasondoko Urkia auzoko bere gurasoen baserrian. Soldaduskatik bueltan zerbaitetan hasi behar, fabriketako garaian sarrera onak omen ziren eta fabrika sartu. 23 urte bitartean konpajinatu zuen itsasondorak lantegiko lana eta herriko kalean zuen ikuilua.

«Tipikoa», esango du norbaitek. Orain artekoa bai. Baina bere kasua berexia izan da: urte guzti horien ondoren «Indar» fabrikaetxetik mendira jo zuen berriro, artzantzara buru-belarri. Hartzak, hortzeok!

Bere maiorazkoa soldadu joan zenean, bietako bat egiten ahal zuen: edo artaldea saldu edota lantegitik irten. Aitortzen digunez, «Ni aspertuta atera nitxoan. Lantokia ere halamoduzkoa genian-eta. Hala-moduzko hori zer? Beruna, brontzea eta altzaria funditzen, lan txarrean nebilean. Aldaketa eskatu eta ukatu zidatekean; ardiak ere hartuta genizkian. Pentsatu niana: «Ni hemen nere osasuna galtzen aritu? Gezurre dek! Beste leku batean lana eginda ere, ogia nonbaitetik aterako al diagu!». Eta azken erremedio bezala mendira». Ez errazetik joateko delako.

— Eta, alde ederreko diferentzia, ezta?! Osasuna galtzeko kuidadorik bai orain?

— Beno, leku guztietan zegok hemen lana egin beharra, baino, behintzat, heure gustoko lanean habil eta, osasuna, hor ere gehienez izaten duk, eguraldi txarra dela-edo, euria edota erauntsia dela; baina funditzen aritu beharrik ez. Makina bat zikinke-ria tragatu nian 23 urtetan, la-letxe!

Esker haundirik izan ez bagenun ere! Goi-parteoitan sanidadea zegok sikiera.

— Artzaiarena lanbide samurra ez da izango bada horratio.

— Ez, ez oso samurra. Lan hori egin eta hortan segitu nahi duenak «amorpropio» bat behar. Ez erraza delako eta errazetik joaten delako. Gaur gazte gutxi ikusiko duk ardiak erosi eta lanean hasten. Ardiak ondo-ezinik ikusiz gero pena eman behar dik: «Sos!, gure ardik ez zebiltzek ederki!». Beti ahaleginean... Heure burua nahi duan bezala maite behar dituk luzituko baduk. Bestalde hasi ezkerro, laister izurratuko dituk.

— Beraz, gauetan ez zarete esnatu ere egiten, ez duzue batere kezkarik...

— Ez duk sasoi txarra oraintxe...! Gauero-gauero jeiki behar, 3-4 aldiz igoal. Mekabendioska aritzea alperrik. Errezatu Sanantoniori eta segi aurrera.

— Goi-partetako ikusmira eta paisaiarekin gozaten al da batere?

— Goian zerua eta beheran Aralar. Aldamenera begiratu: elorriren bat, behorra eta ardia eta beste pago zaharren batzuk, besterik ez.

— Bertsolari eta poetak kantatu eta diotena orduan...

— Hori kanpotik dagoenak akaso ikusiko dik. Bertatik dagoenak, hortik jango bada, egin beharra lana latz. Eta gainera ez dela jaten hain erraz, jendeak uste antzera. Ez ardi ez beste ganaduarekin.

— Garai bateko artzaintza, berri, ezberdina al zen?

— Gaurkoaren oinarriak zizkian, baina aurrerakuntzarik ez. Gaurregun kamioian karreatzen dizkiagu ardiak hemendik Errenderin daukagun pabe-



(Duen edaderako, berak ezagun du sanidadea).

«LOTSATI» IZANDAKOAREN IZENA PIZTUZ

Gerraurreko goierritar poeta bat: Gurutz Sarasola

Bere bizitza eta obra

1915go maiatzaren 3an jaio zen da Itsasondon Gurutz Sarasola Martinez, oso aber-tzale uste sendoko industriari familia baten baitan, bederatzi anai-arrebata-tik bigarren semea izan zelarik.

Lekarozko Kolejoan ikasten du Ba-txilergoa eta, komertzio karrera, be-rriz, Donostian, ikasketok hizkuntza ikastearekin txandakatu zituelarik, in-gelesa eta Mont de Marsanen hobetu-ko zuen frantsesa batipat.

Halabaina, bere egintza printzipala euskararen ikastea eta lantzea izan zen, makina bat lan idatzi zituelarik, poesia gehienbat, «El Día» donostiar periodikuan «Lotsati» seudonimopean sinatu zituenak lekuko.

1936.ean, 20 urte zituela hiltzen da Donostian bertan era dramatikoan, aipatu egunkarian argitaratu zen bere obraren zatia delarik gorde ahal izan den bakarra.

Beste batzuen bezala, bizitza eta obra labur bezain baliotsua Gurutzena (Eustakio Mendizabal «Txikia», Niko-las Lekuona... gertukoenak aipatzea-gatik). Beren altzora omen daramazki-te jainkoek gehien maite dituztenak, gazte-gazterik. Zer ez ote zuten egin-go mundu honetan bestela? Barkatuko al digu irakurleak, haren, poetaren, izena gogoratzeagatik eta goratzeaga-tik eginiko ezein gehiegikeria. Bihoa hemendik «Lotsati»ren poemagintza-ren agergarri labur bat.

**Edurne Sarasola
Martinez eta J.M.A.**

Bada gure artean uste aski za-baldu bat, gerra aurreko idaz-leen homojeneotasun ideologi-koa baieztatu duena. Nik neuk zabaltzen lagundu dudak topiko ho-rreren arabera, delako idazle horiek goitik beherako katolikoak eta eraba-teko abertzaleak ziren denak. Beste hitz batzuek esateko, haien bizimo-duan eta izkribuetan ez zen nabari inolako heterodosiaren aztarrenik.

Duela jadanik zenbait urte, Koldo Mitxelenaekin izan nuen hitz aspertu batean, ezagutzen ez nuen olerkari baten berri jakinarazi zidan, haren poema baten kopiaren bidez. Literatur balioaren aldetik beharbada maila go-renekoa ez bazirudien ere, argi ze-goien mamiaren aldetik garaiko poe-magintzan zeharo arrotz gertatzen zen pentsamolde bat adierazten zela ber-tan.

Olerkia «Lotsati» delako batek izen-petzen zuen. Mitxelenak berak esan zi-danez, Itsasondoko Sarasolatarren fa-miliako bat ezkututzen zen izengoiti horren pean, eta argitaratu zituen olerkiak El día egunkari donostiarra-ren euskal orrian agertu ziren. Gerra aurreko euskal poemagintzari buruzko



Gurutz Sarasola Martinez, «Lotsati»

ikuspegi ofiziala osatzeko interesgarri gerta zitekeelakoan «Lotsati»ren lanak biltzea komenigarria zela pentsatu ge-nuen. Egilearen iloba batek, Jon Gu-rutz Olaskoaga adiskideak, egin zuen bilduma. Hemeretzi olerki aurkitu zi-tuen, lehena 1935eko irailaren 11n El Día-n argitaratua eta azkena 1936ko urtarrilaren 24ean, bere burua hil ze-zan baino egun batzuek lehenago.

Olerkari ezezagunegi honen jardunaren erakusgarri gisa, bere olerki baten zenbait zati aurkeztuko ditut he-men. Zatiak «Bizitza eta maitasuna» izenburuaz 1935eko azaroaren 2an ar-gitaratu zen olerkiari dagozkio.

Uste dut gerra aurreko poemagin-tza, azaletik bederen, ezagutzen duen edonor bat etorriko dela nirekin olerki honi, mamiaren aldetik batez ere, da-rion nabarmentasuna aitortzen. Ira-kurlearengan «Lotsati»ren obra ezagu-tzeko guraria kilikatu badut burutu da artikulu honen helburua. Izan ere eus-kal poemagintzaren alorrean dagokion lekua iritsi ez duen olerkari baten aurrean gaudela uste dut.

Ibon Sarasola. Euskaltzaina



Bizitza eta maitasuna

Ene maitea oldoztu zazu orain
Zenbat ikaragarritzko zailtasunez
Alkar maitatuz gaudeken orain.

/.../
Adan eta Eba bizi ziranean
Tximist bat erori bazitzayen,
Ta au gertatu ziteken...
Beñere ez giñan ikusiko
Ordutik onuntz
Zenbat gizon diran ezkondu!
Ta ez diran ezkondu!
Zenbat ume izan dituzten!
Ta zenbat izan ez dituzten!
Gu biok berriz ene maitea
Alkar irikiz ginjoazen bizitzaren atea!

/.../
Eta ara nun bein ludira
Zeure gorputza agertu zindun...
Eta nik ene biotza
Zeuri agertzeko maitasun!
Eta orain, nere Gaurminia,
Galdetzen dizut bildurtzen etzeran
Jakitean (ta au da egizko egia)
Zein txiripaz ludi ontara etorri geran!

Txiripaz etorri gera mundura,
Eta gayo giñanetik eriotzaruntz goaz berriz
Berriz suntsitzera argietatik illunpenera.

Eta bitarte ontan ere zenbat neke,
Zenbat naigabe, zenbat eritasuna re,
Zenbat arrisku eriotzean erortzeko
Ta sekulan beñere ez jaikitze!
Jainkoaren indarrez edo naimenez baizik,
Ziñistu zaidazu, arkitzen gerade bizik,
Ta natorkizu maitasuna eskeñirik.
Eta orain bildurgarritzko ezetza
Ene maitasunaren uka siñesgaitza
Nere belarriak betiko zoratzera
Al doazte orain entzutera?
Zeure naimenaren ezet aul bategaz
Deuseztera al goaz
Etorkizunaren aurka
Irabazi gendun burruka?
iDazazu ikaragarritzko "ez" itza!
Ta zailtasun oiek irixteko bizitza
Alper alperrak izan dira...
Eta nere gogo berbera
Eriotzak daramaka beste ludirat

Maiteko zaitut ametsetan

Eziñ bazaitut maitatu benetan
Maitatuko zaitut ametsetan,
Begiak itxi eta
Egongo naiz zurekin izketan,
Egongo baziñake bezela
Nerekin zeruetan.

(«El Día», 36-1-22)

Eta papera atera bear dezu

Ezkondu bear dezula ta
papera atera bear dezu
Ikasi bear dezula ta
papera atera bear dezu,
papera atera bear dezu
ta papera atera bear dezu.
Au il dala
ta ura jayo dala ta
papera atera bear dezu.
Au egin bear dezula ta
ura egin bear dezula ta
papera atera bear dezu
ta papera atera bear dezu.
Zera... garbitzeko ere
papera atera bear dezu!!!

(«El Día», 1935-XI-8).



Itsasondon.

Hondoan Sarasolatarren harrobiak ikus daitezke.

Jetsi Sabiñ lurrera

Zeru goi ortatik
Jetxi Sabiñ lurrera
Zure bearra degu ta
Jetxi Sabiñ lurrera,
Ez gaitezen jun...
Ez gaitezen jun leizera.

Eguzki orren atzetik
Zeu, Sabiñ, zaude begira.
Begira... nigarrez begitik
Edo poza dariozula biotzetik.
Poza dariozula biotzetik?
Askatasuna datorrigu zerutik?
Eguzki orren argia
Biurtzen ai al zera
Azkatasun eguzkia?

Ai...! Sabiñ! Sabiñ!
Ai! berriz sortuko baziñake...!
Sortuko baziñake berriz!
Aberriari ondo etorriko litzayoke
Sortuko baziñake berriz.

(«El Día», 1935-XI-25)

Maitasuna eta eriotza

(...)

Gure ezurak lurpean daudelarik
Aragi gaberik,
Ludi au puskatuko balitz,
Zatitu pusketan ainitz,
Ta puska bat illargiratu
Ta besteak berriz galdu...
(Eziñezkoa izanagaitik,
Eziñezkoa izanagaitik)
Ala ere biok berriz alkartu
Puska ortan gerala illargiratu
Zure belaun ezurak nere aurka
Ta eusten dudan bezela orain gerrit
Alkartu berriz gure bion gorputza
Alkar joz daudelarik bizkar ezurret
Usten al dezu mintzatuko giñukela?
Usten al dezu maitatuko giñakela?
Ez ene maitea! Ez ene maitea!
Eriotzak kenduko digu betirako elea
Ta alkar ikusteko mendea
Beti betirako, ene maitea!
Beti betirako, ene maitea!
Oldozten det, oldozten det au maiz
Ta erotu bearrean jartzen naiz.

Lotsati. (1935-XII-4)

Poeta ia inedito honen beste poemak: "Ene Euskaria", "Arantzazuko Ama Birjiñari", "Nik etzaitut geroztik begiz jo", "Ligur", "Bizitza eta Maitasuna", "Murumendiko Damea", "Maitasuna eta Eriotza", "Illargiagaz maitearekin izketan", "Erreberoa", "Nere maiteari", "Eta zu nere aldamenean", "Ai etorriko balitz", "Orain ezkondu zera", "Gezurra dirudi", "Noiz ezkondu bear dan?", "Ankea ebakiko nuke".

Lehen zatiaren emaitzak

BEASAINGO AZTERKETA SOZIOLINGUISTIKOA

Iñaki Larrañaga. Soziologoa

Beasaingo udalerrian burutu berria den Azterketa Soziolinguistikokoaren lehen zatiak honako bi galdera hauei erantzun nahi die: Zenbat dira euskaraz hitzegiten ongi, zerbait eta ezer ez dakitenak? Zenbat erabiltzen da euskara bertan?

Galdera hauen erantzun zehatz bat jaso nahi duenak Otsailaren 2tik hasi eta Beasaingo udaletxean egongo den erakusketan ase ahal izango du bere jakinmina.

Orain, hemen egingo duguna Azterketa Soziolinguistikoa lehen galderari eman dizkion erantzunen artean entresaka bat egitea izango da.

Ikus ditzagun emaitza azpimarragarriak:

1.— Beasaingo udalerria garai batean guztiz euskalduna izan eta mende luze batean zehar (1860-1970) erdalduntze prozesu gogor bat jasan ondoren, orain, berreskurapen prozesu batean sarturik aurkitzen den horietakoa dela ziurta daiteke, beti ere Erroldako datuek duten autobalorazio eta subjektibotasun kutsu edo ajea kontutan izanik.

2.— Inguruko udalerriei begira Beasainen (%47,5) eta Ordizian (%47,9) euskaldunen proportzioa berdintsua agertzen da, Lazkaon aldez, proportzio hori zerbait altuagoa delarik (%52,3).

Bestalde, ia-euskaldun direnen proportzioa Ordizian da altuena (%14,4) eta Beasainen baxuena (%8,6) eta ondorioz erdaldunen proportziorik altuena Beasaingoa gertatzen da (%44) eta baxuena Lazkaon (%36,6) eta Ordizian (%37,7). Beasain izan da beraz, inguruko udalerrietan erdalduntze prozesurik bortitzena jasan duena.

3.— Beasaingo udalerria ordea, hizkuntza aldetik ez da homogeneoa. Izan ere udalerria osotzen duten auzoen artean ezberdintasun nabarmenak ageri dira: — Alde batetik auzorik euskaldunenak, auzo barreiatuak (Arriaran, Garin, e.a.) eta hiri inguruko baserri auzoak daude (euskaldunen proportzioa %75koa baino altuagoa delarik). — Beste aldetik, guztiz kontrako egoera batetan Malkaskotik Porterira arteko eta Laskaibarko auzoak agertzen dira non euskaldunen proportzioak batzbesteko orokorretik asko urruntzen diren, guztiz erdaldunduak aurkitzeraino. — Bi mutur horien tartean aurkitzen dira Beasaingo erdigunea, Urbitik hasi eta Igartzarainoko eremua eta Antzizar-Loinaz aldeko eremua, hiru eremu hauen artean diferentziak ez dira oso nabarmenak. Hiru eremu hauen horietatik Urbi eta Igartza bitartekoa da hiritartuetako eremuetan euskaldunena.



4.— Hizkuntz homogeneitate ezaren ondorioak adinaren mailan ere nabarmetzen dira. Beasaingo biztanleen artean euskara ongi ezagutzen dutenen proportziorik altuenak adineko pertsonen eta 20 urtez beheko haur eta gazteen artean ematen dira, erdaldunduenak aurkitzen diren belaunaldiak 20 urtetik 50 urte bitartekoak direlarik. Datu hauek adierazten dute adin-talde horietako jendea Beasaingo hizkuntz komunitatearentzat zama edo lastre handia dela. Izan ere, urteak joan ahala, adin-talde horietakoak gaurko agureen tokia hartuko dute eta orduan hizkuntzaren sostengu bakarra haurrengan eta gazteengan egongo da, helduen eta adinekoen gehien-goa erdalduna izango delarik. Badago beraz zeregina heldu-gazte jendea (20-35 urtera bitartekoa bereziki) euskalduntzen.

5.— Jaiotze lekuari dagokionez agertzen da Beasainen jaiotakoek baino (%61,1) Gipuzkoa eta batez ere Goierriko eskualdean jaiotakoek euskara ongi dakiten proportzioa altuagoa (%66,3) agertzen dutela. Ez da horrelakorik gertatzen beste euskal herrialdeetan jaio direnekin.

Datuek garbi adierazten dute Euskal Herriatik kanpo jaio direnak ezezik bertako herrialdeetan jaio direnak ere ez dutela Beasain euskaldundu, alderantziz baizik, beraien erdalduntasunak Beasaingo udalerria lehenaz gainera erdalduntzera eramandu.

6.— Herritarren ikasketa mailari dagokionez garbi agertzen dena zera da: gaur egun ikasketak egiten ari direnen artean ongi hitzegiteko gaitasunaren batzbestekoa (%60,1) askoz altuagoa dela Udalerri osokoa baino (%47,5) eta batez ere ikasketak amaitu eta lanean edo beste egoera batetan aurkitzen direnena baino (%42,5). Hemen nabari da hasieran aipatu dugun berreskurapen prozesu horren nondik norakoa, ikasten ari den jendea dela, alegia, euskara ongi ezagutzera iristen ari dena. Adierazgarria da baita ere proportziorik altuena (%74,3) Erdi-goimailako ikasketa

unibertsitarioak egiten ari direnei dagokien bitartean, proportziorik baxuena Lanbide Heziketako ikasketak egiten ari direnen artean ematen direla (%49,6); laneko mundurako prestatzen ari direnen artean, hain zuzen horrela nekez euskaldundu ahal izango dira gure eskualdeko industri lantegiak...

7.— Kategoria sozio-profesionalari dagokionez euskara ongi ezagutzen dutenen proportziorik altuena (%90,5) nekazari autonomoak agertzen dute; ondoren industriari txiki eta handiak (%74,6 eta %77,1rekin); beste maila batean kokatzen dira autonomo ez nekazariak, zerbitzueta-ko eta administrazio-ko enpleguak (%52,4 eta %55,7 bitartean); eta azkenik proportziorik eskasena langile kualifikatuak eta kualifikatu gabeak agertzen dituzte (%32,8 eta %37,8). Alor honetako datuak adierazten digute euskararen gaitasun handiena dutenak (nekazari eta industria-lak) ez direla gizarteko dinamika daramatenak, eta beraz, Beasaingo udalerrian gizarte dinamika markatzen dutenak ez direla hizkuntz gaitasun altuena dutenak. Hizkuntz komunitate baten normalizazioaren ikuspegitik egoera distorsionatu batetan aurkitzen dela ezin uka. Gaur 20 urte baino gutxiago dituztenak gizarte dinamika-aren eragile izatera iristen direnean euskal hizkuntz komunitatearentzat egun hobeak etorriko direla espero daiteke.

Hori lortzeko ordea, neurri zorrotzak eta zehatzak hartu beharko dira euskarak eta euskal kulturak Goierri eskualde honetan bizi duen egoera anemikotik irtezeko indarra eta kementa izan dezan. Neurri horiek udal-agintarien aldetik ezezik gorago-ko mailako agintarien aldetik ere etorri behar dute eta baita Goierriko, Beasaingoa barne, euskaldungoaren aldetik ere eta bereziki ikastetxe, kultur elkarte, herri elkarteek euskararen eta euskal kulturaren benetako sustapen batetan inplikazio saioen onartzetik, horrela herri-dinamika berri bat bideratzen delarik.

EUSKERA ORDIZIAKO KALEETAN

Ordiziako azoka.



86 an egindako azken Erroldaren arabera bere burua euskalduntzat jotzen zuen Ordiziako populazio osoaren %47,94ak eta ia euskalduntzat %18,01ak. Baina datu hauek ez direnez oso zehatz eta fidagarriak, gure burua superbaloratzeko dugun joera nabarmenagatik, Ordiziako Udalak, guzti hori osatzeko asmoz eta bide batez, egunero ko harremanetan euskera zenbat erabiltzen den jakiteko xedez edozein hilabetetako aste arrunt bat aukeratu eta egunak eta orduak finkatu ondoren kalera bidali zituen bi gazte entzuten zuten hizkuntza paperean jasotzera.

Honetarako lau gizarte-talde zehaztu zituen, haurrak, 0-14 urte bitartekoak, gazteak, 15-24, helduak 25-60 eta zaharren taldea adin honetatik gorakoak. Bestalde, hemendik ateratzen diren datuak erabilpen osoaren portzentaia baino altuagoak direla esan beharrean gaudela, ez bait da zenbait faktore murriztaile ematen, hau da goi mailako gaia izatea, mintzakide ezezaguna, egoera formala, ...

Bagenekien ez duela euskara dakien guztiak erabiltzen baina ez genuen espero %20,45ak bakarrik erabiliko zuenik, %27,1, inguruko herritakoak perira datozenean, (Asteazkena eguerdian %47,91).

Datu hauek kezkarriak badira ere, etorkizuna are ilunagoa da, oraindik. Izan ere, gazteen artean %9,81ak baino ez bait du erabiltzen. Haurren artean, berriz, OHO guztian A eredu residuala izanik %38,78ak bakarrik erabiltzen du Euskara eskolatik kanpo.

Badira, bestalde, zenbait uste oker hala nola, euskera «txokoan», «bihotzean» eraman behar den gauzatzen hartzea, oraindik, heri txikitako fenomeno gisa kontsideratzea, «lantoki hoberenetan» gaztelera erabili behar dela uste izatea eta kirol jardunean, merkataritzan gaztelera erabili beharra sentitzea. Halako uste okerragorik!!

Eta azkenik zaharrak, hauen artean, %44,86ak hitzegiten du euskara. Gure gizarteak daraman abiadura kontutan izanik, gure agure hauek faltatzen direnean, eman ditzagun hogeitaz urte, Ordizian Castilla-La Mancha adina gaztelera entzungo dugu.

Datuak hor daude, eta oso zehatzak ez badira ere (+/-%5) oso adierazkorrrak bai. Konponbidea gure esku dago, euskara dakigun guztiok, nonnahi eta edonon euskara erabiltzea, alegia. Zeren eta dakigunok erabiltzen ez badugu zer arrazoi, indar moral dugu inori, baita administrazioari berari ere, bere jardunean euskera erabil dezala eskatzeko?



Udalak ere zeresan handia du gai honen inguruan, baina arazoaz jabetzen ez den bitartean, eta euskerari duen garrantzia ematen ez dion bitartean dagokion azpiegitura antolatuz, ikastetxe, elkarte eta gainontzeko erakundeak inplikatzuz, badut susmoa ez ote garen atzera pausoak ematen arituko.

Bada garaia arazoari behingoz, aurre egiteko.

Helduen artean ere oso gutxi erabiltzen da euskera, gazteen artean baino gehiago erabili arren, %11,78. Nabarmenki azaltzen da kolektibo honetan gaztelarak duen prestigioa «ohitura» eta «joera» izenpean gordetzen bada ere. Eta harrigarria badirudi ere, helduen euskalduntze dinamikaren barne aurre-abiada onean bagoaz ere, erabilpenari dagokionean atzera goazela esango nuke.

Bada fenomeno berezi bat helduen artean ematen dena eta eragin handia duena haurengan. Hots, guraso euskaldun asko dira elkarrekin gaztelera etengabe erabiltzen dutenak, haurrarenagana euskeraz zuzentzen diren arren. Badirudi hauentzat euskera haurren hizkuntza besterik ez dela. Eta haurrak bereizkuntza hau berehala susmatzen du eta konturatu gabe gaztelera ikasi eta hitzegiteko beharra sentitzen du. Hobeto esanda gurasoek sentiarazen die inkontzienteki behar hori.

Beraz, gazteak ez du euskeraren beharrik sentitzen, baina ez du sentitzen lehen esan bezala, helduek etengabe erabiltzen dutelako gaztelera eta ez du berarentzat halako garrantzirik hartzen. Badira hala ere, beste zenbait arrazoi, hezkuntza, hau da jarraipenik ez izatea oinarritzko eta ertaineko hezkuntza goi mailakoan, administrazioa bera, etab. etab.

Peio Iturrioz,
Ordiziako Udaltza
Euskara Arduradun

MIAMI TABERNA

PINTXO HOTZ ETA BEROETAN
ESPEZIALDUAK

Tfnoa: 88 00 15

ORDIZIA



DAR

PoTt

BEASAIN



EUSKAL ANTZERKIARI EZ ZAIO JARIORIK AGORTU

Kontrabajuleak: «Egin dezagun parre gure negar eta penekin»

Urtarrilaren 6an izan genituen «Maskarada»-koak Ordiziako Gaztetxean eta berehala izango dira, dirudienez, Beasainen. Obra nobedoso batekin etorri ere, Patrick Süskinden «Kontrabajua», antzerki-lan unibertsala tajuz ekarria euskarara eta zirkuito berriak irekitzeko aproposa izan dena. Merezi zuen bene-benetan.

«**M**askarada» taldeak ia hamar urte betetzen ditu antzerki talde legez, «Cómicos de la Legua» desegindutik 80.ean osatu zirenez geroztik.

Helbururik garbiena antzerkia euskaraz egitea zen, nahiz harrigarri samarra iruditu litekeen Bilbon eta urte haietan halakorik sortzea. Talde txiki hark, zituen arazo guztiekin, kaleko antzerkia egitera jo zuen: «Panzart», «Tira-bira-jira-kalejira»; Bernardo Atxagarekin, «Jimmy Potxolo eta zapataria», «Logalea zeukan ekilibristaren kasua», «Zaunka egiten ez zekien txakurra», «Danbor majikoa», etab.

Ikuskizun zegoen heldu-jendearen-tzako antzerkia egitearen arazoa. Mikel Martinez maskaradatar aktorea luze mintzatu zaigu garai bateko urtean behingo antzerki herritarraz, ohitura horiei eutsi beharraz eta batipat zirkuito berriak eratzearen garrantziaz. Infrastruktura majoa montatu eta Dario Fo-ren «Pistolaren begi zuri-bel-tzak» ospetsua, M. Legasseren «Gastinbeltzaren karabina» arrakastatsua, «Harrizko Aresti Hau» —euskaraz egin den muntairik handienetakoa—, «Gernika 16.30 H.S.O.» latza eta «Kontrabajua», azkenik-edo, hurbileko bakarriketa bikain, zuzena eta zarragarria.

«Kontrabajua»-rekin, 180-90 funtzio eman dituzte dagoeneko eta auskalo zenbat denboran ibili beharko duten instrumentua bizkargainean. «Maskarada»-ko kontrabajulea den Mikel Martinezekin lotu ginen gu.

Mikelen ustez «Kontrabajua» oso ondo dago dagoen eran, testua beragatik, planteatu den moduagatik, zirkuito berri bat zabaldu dutelako. «Hau da, edozein lekutan sar daiteke, taberna batean, gela bat edo leku handiago batean ere, merkea da, jendeak ordaindu ahal du. Beste obraren batekin beti Administrartza-zen eskuetan zaude. Beste bantaja bat da ez daukazula desmontaje lan handirik. Aktore bakarra behar du, deitzen dutenean bagoaz eta listo». Horrela iritsi ziren iaz Lazkao-ra eta han ikusi genuen lehen aldiz. Halere Gipuzkoaldetik baino gehiago korritu dute Bizkaialdetik, beste herrialdeak ahaztu gabe.

Aktorea oso pozik dago Süskind-en obrari egin zitzaion egokitzeaz, euskaratu-bizkaiera batean dator eta zer dakarkin antzerki honek partikularki? Gure ustez, garai bateko monologo eta herri-antzerkitxoak errepika ezin-nak zirelako ustean daudenentzat, uste haiek ustel bihurtuko litzaizkieke hau ikusiko balute.

Ordubete inguruan dihardu aktoreak taula gainean. Hori etorria eta jarria! Hortarako zer egin behar den? Martinez berak erantzungo digu: «Ba-



da obra ona izatea, montajea, dena ondo kalkulatu edukitzea, oso ondo aukeratuta eta segun nola planteatzen duzun. Ze, testu hau berau beste era batera eginda ikusi dut eta, nire ustez, askoz gaxagoa zen bukaera emateko».

Ondo-samar-edo interpretatu eta «asmatzen baduzu, jendea mantentzen duzu tente ordu betez». Gainera, gertatzen da Goierri ikuslegoaren gehienak bazekiela euskaraz, baina hortik erdaldun askoren aurrean ere egin dute. Eta, hala eta guztiz, hor gelditu dira, interesaturik. M. Martinez: «Oso gratifikantea da jendeak horrela parte hartzea. Dakienak zertxobait ulertzen du dakien hori eta ez dakienak aluzinatzen du: «euskarak eliteko musika eta opera-mundu eta kontu guzti horietarako balio du!». «Maila bat ematen dio euskarari, nahiz gaztetxe batean izan, nahiz zaharren egoitzaren batean».

Obra honetan, ikusleak parte hartzen du nolabait, gogotik parte hartu ere, behin bertan, barruan zaude. Jendea harapatzeko amu polita, zuzen-zuzena izatea, kakoa. Aktoreak aurrean zer daukan kontrolatzen du eta horrek asko laguntzen du. Inork gutxi desatzen du ospa egitea, kontrabajua eta bere jolea, hain inozente-ki sartu bait dira bere baitan.

Antzezterakoan, hiritar-jendea eta herritar-jendearen arteko jarrera ezberdinik aurkitu ote duen galdetzean, ezetz esaten dit «Maskarada»-koak. «Inolaz ere. Nik uste gehiago ikusiko dela, beharbada, beste obra batzuekin, «Ama begira zazu» adibidez. Hori herrietan arrakasta gehiago izateko pentsatuagoa dago. Hau ez da ez herrikoia ez hiritarra, leku guztietan berdintsua nabaritzen dut. Gehiago nabaritzen da segun ze jende mota, adina, euskara zenbateraino ulertzen duten, e.a.».

Monologoaren barne sartuz gero, zer esaten den? Amodioa, gorrotoa, da-na-da, frustrazioa... «Pertsonaia baten frustrazioak eta balentria falta gauzak egiteko. Gauza nahiko sinpleak, guztioi gertatzen zaizkigunak. Tipoak gauza batzu egin nahi dituela, ez dela atrebitzen. Frustraturik aurkitzen da, hori da hor konstatzen dena, era oso komiko eta barregarri batez».

«Kontrabajua»ren ikusle edonor kontrabajujoela sentitu liteke. «Bada bai, ni nerone, gutxienez, hau prestatzen ari naizela, asko identifikatzen naiz hor konstatzen diren frustrazioekin eta uste dut jende gehiena identifikatzen dela berarekin. Gauza kuriosoa da: obra prestatzear nuela benetako kontrabajujo-leekin egon nintzen eta testuan agertzen diren zenbait pasadizu benetan gertatzen zitzaizkien. Parre asko egin nuen horrekin».



Kondizio guztietako jendea identifikatu liteke musikoarekin eta, guk, honen mixeriak aberatsen bati ere gertatu lekizkiokela esan diogu Mikeli. Ea aberatsek ere negar egiten duten. «Bada kontrabajularia ez dut uste aberatsa izango denik. Argi dago denok egiten dugula negar. Gertatzen da batzuen negarra beste batzuen baino gehiago ajola zaidala. Zoriona ez eman arren, egia da baita ere diruak laguntzen duela. Aberatsen negarrak gutxiago kezkatzen naute, jakina! Baina egin dezagun barre gure negar eta penekin, geure buruarekin eta geure buruari».

Azkena, azkenean eta, zer egingo ote du egunen batean kontrabajua eta bizitza hainbeste maite eta gorrotatzen dituen horrek? «Hori askotan galdetu izan didate eta ez dut jakin zer erantzun. Nik uste dut, egunen batean, kontrabajujoela atrebituko dela egitera egin beharrekoa, hautsiko du hautsi beharrekoarekin. Ez du lortuko Sara, bere ametsetako neska, botako dute Orkestra Nazionaletik, edo joango da, eta beste istorio bati emango dio hasiera, heroe-edo bati dagokion moduan».

Happy End, beraz.

J.M. Arandia

TXINDOKI SUKALDEKO ALTZARIAK LOGOS - EN Banatzaile Ofiziala


J.M. Iturrioz, z/g Tfona.: 88 03 93 BEASAIN

FOTOETXE

JOSEMI TELERIN
ARGAZKIGILEA

BIDEO PROFESIONALA ERREBELATUAK eta ARGAZKIGINTZARAKO MATERIALEAK

Nafarroa Etorbidea, 23 - Tel. 88 46 05 - 20200 BEASAIN



Bertsolaritza Goierrin (I)

Nire lan hau ez da azterketa zientifiko zehatz baten fruitu izango. Memoriaz fidatuz eta neure esperientziaren argitan oratu eta borobildu nahi nuke gaurko opila.

Lehenengo eta behin esan behar da, Goierrin bertsolaritzak indarrean dirauela. Inoiz baino goierritar gehiago dabil plazaz plaza bertsotan: Lazkao Txiki, Murua, Mendizabal eta abar luzea. Esan genezake, bestalde, Goierriko lehen profesionala Lazkao Txiki izan dela eta hori orain dela hogeita-mar urtez honako kontua da. Horrek zer esan nahi ote du, Goierriko bertsolaletasuna eta bertsolaritza zeharo berriak direla? Edota galdera apur bat aldatuz, Lazkao Txikiren aurretik ez dela izan Goierrin itxurazko bertsolaririk? Erantzuna geroxeago berekasa helduko zaigu.

Historian zehar ezagutzen dugun lehen bertsolaria goierritarra izanik (Fernando amezketarra), beste berrehun urtean, Lazkao Txikiren arora bitarte, ez ote da hazi berririk erne? Egia da Juan Inazio Iztuetak badituela bertsuak, baina, idatzizko bertsu solte batzuz gorabehera, har ote genezake bertsolaritzat?

Fernando amezketarra bera ere bertsolaritzagatik baino areago komiko eta ateraldi xelebreen asmatzaile bezala ezagunagoa da. Haren bertsolaritasuna bigarren planuan egon da beti, nahiz eta azken urte hauetan zenbait ikertzailek erruz goraipatu.

Zaldibiko Patxi Errota ere Lazkao Txiki baino lehenagokoa dugu. Hau ere bertsojartzailea izaki, ordea, ez bapatekoa. Beraz, ez dugu izan Goierrin bapateko bertsolaririk Joxe Miel Iztuetaren aurretik? Nik esan behar banu, baietz esango nuke. Noski izan direla bertsolariak eta onak, gainera! Izen eta apeiliduekin ezagutzen ez baldin badiugu edo anonimatuan geratu baldin badira, bertsua kontzebitzeko modu eta bertsua jorratzen zuteneko toki ezkutu edo itxiarena da errua.

Nik uste, bertsua etengabe kantatu dela Goierrin aspaldiko denboretatik ekinik. Goierriko edozein taberna baz-



ter da horren testigu. Ordiziako azoka eragin handikoa izan da tabernako bertsolaritza zuzpertzeko. Esate baterako, hemen Zaldibian behintzat, garai batean, ez zen izango bertsu saiorik gabeko azteazken jilunterik. Ezta igandeetan «bezpera» ondorenik. Eta Meza Nagusi ostean hasten ez baziren, gaitzerdi! Auzolan guztiak bertsu kantari amaitzen omen ziren. Baina inoizkoan plazaratzeko asmo eta mentaliterik gabe ihardun, ordea! Beraiek anonimatuan geratu baldin baziren ere, haiei esker plazaratu da bertsolaritza eta

haietxei esker dago dagoen lekuan, haien ondo-aitzurrari esker lortu baita, gaur bertsu-bideetan eskabadorak sartu eta tontorrek zelaitzeko modua. Isilpean geratu diren bertsolari horienak dira hau bezalako ateraldiak:

“Aragia eskatu ta ezurak ekarri, afaltzera ez gaituk alferrik etorri!”

Nik neuk, hemen Zaldibian, jende dexente ezagutu dut bertsoan dezente egiten duena: Hilario Otegi, Martixio Arruabarrena, Hilario Nazabal, Miel Munduate, Lorentxo Sukia, Patxi Zubeldia eta abar.

Baina Goierri inor izan baldin bada bertsolari, Artxanberri izan da bat. Eta hura ez zen iritsi izenik lortzera. Izenik gabeko izana aparte zuen ordea. Begira bestela Uztapideri zer erantzun zion, poto laster egingo zuela esan baitzion Uztapidek.

“Sekula ere ez det izan nik aundia naizen usterik ezta, ordea, behar danean erantzun gabe usterik; gizonak nola esan lezazke era ortako uskerik? Artxanbariren pototik ez dik inork edango esnerik.”

Adibideak jartzerakoan lokalista samar jokatu dut, Zaldibiari lotu bait naitzaio, baina Zaldibiagatik dioguna berdin esan genezake bailarako beste edozein herriri buruz.

Amaitze aldera, azkenik, beste galdera bat datorkit gogora: bertsolaritza indarrean dagoela esan dugu, baina lehengo garaietan baino indartsuago? Gerora ere horrela iraungo al du? Ezin eman daiteke baiezko irmorik nahiz ezezko borobilik. Erantzuna oso konplexua da. Hala eta guztiz ere, hurrengo alean saiatuko gara zertxobait argitzen edo iritzi batzu ematen.

Rufino Iraola



▲
Goierriko
bertsolariak
prestu asko
Zaldibin

XR2i



FORMULA BERRIA

MUJICA
Automobilak



Errepide Nagusia, l. 419Km.a
Tfnoa: 88 74 00 BEASAIN

LaZkar
transporte

- 70 ordezkartza baino gehiago dituen erakundea.
- Penintsulako edozein puntutara zerbitzuak

HIRIBARREN 32
LAZKAO

Tfnoa: 88 07 50
FAX: 88 81 12



MUJICA
LIBURUDENDA

Kale Nagusia, 19. Tel. 88 11 94
ORDIZIA

foto
alzuri

ETXE-UBI - , 1 - Telf. (943) 880478
20200 BEASAIN (Guipúzcoa)

TOYOTA
EUSKO-NIPON, S.A.

Katea Hauzoa
Apartado 51 - Tel. 884238

20200 BEASAIN
(Guipúzcoa)



NERE ENBOR

LUZETIK

BAT

HATZAPARRETARA

ZUZKO

MALKO GORRI

IXURI

NAU

HERRIAREN

SAMINAK

CHUECA

E/orrigea

EUSKAL IKASLEAK VALLADOLID 1976